

Rosa Luxemburg

Kartzelako gutunak
Sophie Liebknechti



Hitzaurrea: Amaia Lasa
Hitzostea: Ignazio Aiestaran

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Rosa Luxemburg

***KARTZELAKO GUTUNAK
SOPHIE LIEBKNECHTI***

***ORDENA GAIENDU DA
BERLINEN***

Itzultzailea:
Amaia Lasa

Rosa Luxemburg

***KARTZELAKO GUTUNAK
SOPHIE LIEBKNECHTI***

***ORDENA GAIENDU DA
BERLINEN***

Itzultzailea:
Amaia Lasas

Jatorrizko izenburua (1920): *Briefe aus dem Gefängnis eta Die Ordnung herrscht in Berlin.*

Lehenengo edizioa: *Kartzelako gutunak Sophie Liebknechti eta Ordona gailendu da Berlinen.*

Egilea: **Rosa Luxemburg.**

Jatorrizko lizentzia: **Jabetza publikoa.**

Argitalpen honen lizentzia: **CC BY-SA 3.0**

Barruko argazkiaren egilea: **Friedrich Magnussen.**

Barruko argazkiaren lizentzia: **Creative Commons Attribution-Share Alike 3.0 Germany.**

Itzulpena: **Amaia Lasa eta Hedoi Etxarte.**

Hitzaurrea: **Amaia Lasa.**

Hitzostea: **Ignazio Aiestaran.**

Azalaren diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo.**

Lehenengo edizioa: **2018ko urria.**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Lan honek Goethe-Institut-en dirulaguntza bat jaso du.



Lan honek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bat jaso du.



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 Moldatu gabea. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu, jendartean erakusteko eta lan eratorriak egiteko, beti ere lizentzia berdina errespetatzen baduzu.

ISBN: 978-84-16946-18-1

Lege gordailua: NA 2401-2018

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA (Amaia Lasa).....	19
KARTZELAKO GUTUNAK SOPHIE LIEBKNECHTI	23
JATORRIZKO ARGITALPENARI SARRERA.....	25
Leipzig, 1916ko uztailak 7	29
Berlin, 1916ko abuztuak 5	31
Wronke, 1916ko abuztuak 24	33
1916ko azaroak 21	35
1916ko urtarrilak 15	37
1917ko otsailak 18	41
1917ko apirilak 19	45
1917ko maiatzak 2	49
1917ko maiatzak 19	53

1917ko maiatzak 23	57
1917ko maiatzaren bukaeran	63
1917ko ekainak 1	67
1917ko uztailak 20	69
Breslau, 1917ko abuztuak 2	75
1917ko azaroaren erdialdean	79
1917ko azaroak 24	83
1917ko abenduaren erdialdean	87
1918ko urtarrilak 14	93
1918ko martxoak 24	97
1918ko maiatzak 2	101
1918ko maiatzak 12	103
1918ko urriak 18	107
Rosa Luxemburgi gutun anonimoa	109
ORDENA GAIENDU DA BERLINEN	113
HITZOSTEA: ZENBAIT TESI ROSA LUXEBURG ESPARTAKISTARI BURUZ (Ignazio Aiestaran)	125

HECK





ARGITALETXEAREN OHARRA LUTXOAK, ANELIDOAK, OILOAK ETA ARRANOAK

*Eta horregatik bere heriotza,
gertu sortu zuen horrore guztiarekin,
bere bizitzaren dramaren ondorio logikoa
iruditu zitzaidan;
anabasa mutu haren aurrean egon ginen,
antzinako tragedia baten ikuskizun patetiko
eta errukigabe batean bezala.*

Luise Kautsky

1919tik urtero, Marxen mamuak bezala, manifestazio batek zeharkatzen du Berlin. 1919tik dabil mamua urtero nazien botak Berlin zapaldu zuen garaietan izan ezik (1933-1945). Sozialdemokraziaren gidaritzapean hil zituzten Rosa Luxemburg eta Karl Liebknechten oroitzapena aldarrikatzeko egiten da manifestazio hori. 1924tik aurrera Luxemburg eta Liebknechthi Lenin batu zion orduan manifestazioa antolatzen zuen KPD Alemaniako Alderdi Komunistak. Orduetik *LLL-Demonstration* deitzen diote, abizenen eta goitizenen lehen letrari esanahi ia magiko bat emanaz. 1949tik 1989ra, Alemaniako Errepublika Demokrati-

koaren pean, izaera ofiziala izan zuen tradizio honek. Erori zen Berlingo harresia, mamuaren asturua ez zen gauza segurua, baina badabil ordutik ezker guztia baturik. Urtero aldarrikapenak eguneratuz Rosa, Karl eta Vladimir. Urtarrileko bigarren igandean 1919ko hamabostgarren egunean hil zituzten 33 espartakistak gogoan. Frankfurter Tor-en hasi eta Friedrichsfeldeko hilerri sozialistaraino. Han elkartzen dira kurdu erbesterratuak eta palestinarrak, Turkian ilegalak diren alderdi maoistetako kideak, okupak eta autonomoak, antifak, Die Linke eta sozialdemokraziaren ezkerrera dauden erakunde guztietako kideak, sindikalistak.

Aurki, ehun urte beteko dira Luxemburg hil zutela. Baina zergatik irteten dira, urtero, hamaika jatorritako 15.000 lagun Berlingo kaleetan heriotza hura gogoratzen? Zergatik gogoratzen ditu hainbeste jendeke manifa batean Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht eta ez Durruti, Gramsci, Kollontai, Louise Michel, Bakunin, Marx, Engels, Jaures, Robespierre, Saint-Just, Müntzer ala Europako beste militante iraultzaileren bat?

Zergatik Luxemburgen gutun hauek

Jarraian dauzkazunak Rosa Luxemburgek bere lagun Sophie Liebknechti igorritako gutunak dira. Jende mordoari idatzi zizkion gutunak baina hauek izan ziren argitaratu zituzten lehenengoak. Gutun hauekin soilik, ezingo diogu erantzun egin berri ditugun galderari: ezingo dugu jakin zergatik bere hilketatik ehun urtera hain presente dagoen Luxemburg. Baina galdera hori erantzuteko hastapen bat izan daiteke testu hauetatik abiatuko denarentzat. Ez da nolana hiko hasiera izango gainera. Jatorrizko argitalpenean, 1920an Jugend-Internationale argitaletxeak ohartarazi zuen

bezala «Rosa Luxemburg zientzialaria eta borrokalaria soilik ezagutzen duenak ez ditu ezagutzen bere izatearen alderdi guztiak. Bere kartzelako gutunek irudia osatzen dute. Rosa Luxemburgen jarraitzaileek eta borrokako kideek bere bihotz nekaezinaren aberastasuna ezagutzeko eskubidea dute».

Agian, gizakiaren dimentsio interesgarriena alboratuz, norbaitek pentsa dezake gutunok irakurtzea denbora galtze bat dela. Laguntasunak eta preso dagoenaren komunikatzeko beharrak ez duela garrantzia politiko eta filosofikorik milaka lagun antolatu dituen pertsonaren, historia-ekonomia-politika aztertu duenaren aldamenean. Baina lerrootan ikusiko du, besteak beste, Luxemburgen erregaia bizitzaren edertasuna zela, plazer txikien bilaketa, eguneroko une xamurretan edertasuna ikusten zuela, baita kartzelan ere. Une alaiak gogoratzeak alai jartzen zuela. Eta beraz, kartzelatik ere, 1918ko uztailean Luise Kautskyri esan zion bezala: «Honekin guztiarekin bukatuko dugu eta ez zaigu inoiz ahaztuko gauza eder txikienarekin eta onenarekin ahalik eta gehien gozatzea».¹ Zerbaitengatik egingo zuen bere unibertsitateko tesia Karl Marxek Epikurori buruz.

Ez da hau euskaraz dugun Rosa Luxemburgen estreinako lana. 1989an liburu honen itzultzaile berak, Amaia Lasak, Susa aldizkariaren ekaineko alean gutun bat euskaratu zuen. 2008an *Erreforma edo iraultza* klasikoa argitaratu zuen Federiko Engels Fundazioak, argitaratzaileen hitzurre landu batekin gainera. Luxemburgi buruz bi liburu argitaratu dira. Lehenengoaren berri Ignazio Aiestaranek eman zigun, Gotzon Garatek 1974 Ediciones Mensajeron ateratako *Marxen*

1 Rosa Luxemburg, *Cartas a Karl y Luise Kautsky*, Galba Edicions: 1975 Bartzelona. 233. or.

ondoko errebisionismoa. Rosa Luxemburg. Leninen bizitza. Bigarrena, garaikideagoa, 2000an Lorea Agirrek argitaratu zuen *Rosa Luxemburg* biografia da.

Liburu honetako gutunei eta Luxemburgen testamentu politikoari bi ahots gehitu nahi izan dizkiogu. Duela ia lau hamarkada gutunok itzultzen hasi zen Amaia Lasarena hitzaurrean. Eta Rosa Luxemburgen ibilbidea eta ekarpenak, letraz letra, gogora ekarri dizkigun Ignazio Aiestaranena hitzostean. Uste dugu gure geografiara eta garaira ekartzeko bi gonbidapen eder direla.

Animalia politiko bat, animalia animaliazale bat

Lenin iraultzaile sobietarraren anaia, Alexander, naturalista izan zen. Etxean pasa zuen azken udan anelidoei buruzko disertazio bat prestatzen ari zen eta etengabe lan egiten zuen mikroskopioarekin. Argia aprobetxatzeko, egunsentiarekin batera jaikitzen zen, lanean hasteko. Garaian, Leninek uste zuen bere anaia ez zela iraultzailea izango «iraultzaile batek ezin duelako hainbeste denbora eman anelidoak ikertzen». Denbora pasata Lenin jabetu zen ezetz, oker zebilela. Alexander Ulianov, Leninen anaia nagusia mugimendu populista errusiarreko kide nabarmena zen, anarkis-motik gertukoa zen mugimendu politiko zabal batekoa, eta Alexander III.a tsarra hiltzen ahalegindu zen. Alexanderren zigorra heriotza izan zen: 1887ko maiatzaren 20an urkatu zuten Petersburgon. Bere anaiaren amaiera tragikoak ez zuen Vladimir gaztea desesperaziora eramanez, Nadezhda Krupskaiak kontatzen duenez, kontrakoa gertatu zitzaion: iraultza eta ikerketa, pentsamendua eta baretasuna irakatsi zizkion Vladimirri Alexanderren bizitzak eta heriotzak.²

2 Nadezhda Krupskaiak, *Recuerdo de Lenin*, Fundación Federico Engels:

Luxemburgen gutunotan ikusiko duzu, bereziki txoriekiko baina baita zuhaitzekiko Luxemburgek zuen harremana. Bera ere animaliekin alderatzen zuten. Hala, 1901eko Lubeckeko SPDren Kongresuan alderdiko zaharrenak asaldatu zirenean August Bebel alderdikideak tribunatik esan zuen, irribarre atsegina lagun: «Utzi bakean Rosa, gure karpa haztegia luto bat izateko behar handia dugu».³ Eztabaidetan erasokorra zen baina luto hark zaintzen zituen Kautsytarren semeak gurasoak atzerrira joaten zirenean, adibidez. Beren ikasketez arduratzen zen eta jostailuak oparitzen zizkien.

Baina, ziurrenik ez da hau Luxemburg animaliekin lotzen duen aipu ezagunena. Amaia Lasak liburu honen hitzaurrean gogoratzen duen bezala, «ahate ibilera» zuela esan ohi zuen. Eta Hannah Arendtek–Luise Kautskyri idatzitako gutun baten pasarte bat berreskuratuz– nabarmendu zuen Leninek ez bezala, Luxemburgek onartu zuela «akats batengatik ari zela historiaren zirimolan dantzan. Berez, antzarak hazteko jai» zela.⁴

Iragana: etorkizunez betako arma bat

1919 urtea hasi berritan, sozialdemokraten esanetara zeuden *Freikorpe*ek asasinatu eta bere gorpua *Landwehrkanalera* jaurti aurretik, Rosa Luxemburgek liburu honetan gutunen ostean bildu dugun *Ordena gailendu da Berlingen* testu ezaguna idatzi zuen. Bertan Luxemburgek zetorren porrota ospatzen zuen «etorkizuneko garaipena iragartzeko». Garbi zuen Berlingo altxamendua «huts egitera kondenatua zegoela». Hi-

2015 Madril. 16.-17. or.

3 Luise Kautsky *in* Rosa Luxemburg, *Cartas a Karl y Luise Kautsky*. 85. or.

4 Hannah Arendt *in* Rosa Luxemburg, *La Revolución rusa*, Página Indómita: 2017 Bartzelona. 24. or.

riburua isolatuta zegoen, gobernu sozialdemokratak langileen matxinada abandonatu zuen. Rosak ez zuen matxinadarekin bat egiten, bazekien ez zela garai-penerako abagunea, baina sortu berria zen Alderdi Komunistak hala erabaki zuen gehiengoz eta berak ere matxinadan parte hartu zuen. Sarritan, bere kideak ez abandonatzeagatik arduragabea izan zela egotzi izan zioten iraultzaile askok, Marx eta Engelsek 1949an eta Leninek berak 1917an egin bezala.⁵ Hil bezperako bere artikuluan hemeretzigarren mendeko iraultzaileek izandako porrotak ekarri zituen gogora Luxemburgek -1831ko Lyon, Erresuma Batuko kartistak, 1848ko iraultzak, 1871eko Pariseko Komuna- adierazteko sozialismoak beti lortu zuela birsortzea eta oinarri sendoagoak eta zabalagoak izatea. Espartakisten hondamendiak proletarioen porroten tradizioarekin bat egiten zuen eta, beraz: berriz jaiotzeko aukera zabal-tzen zuen.⁶

Arerio politiko izan zituenekin lagun handia izan zen, Kautskytarrak kasu. Bera hil ostean komunismoaren arerio izan zirenek miretsi zuten, Hannah Arendt-tek «A heroine of Revolution» testuan bezala.⁷ Marxista eta iraultzaile garaikideek aztertu eta erantzun egiten zioten idazten zuenari, Georg Lukács-ek kasu.⁸ Bere heriotzatik hamarkadetara iraultzaz eta matxinadaz, gerraz eta antolakuntzaz, historiaz eta mitoez gogoeta egiteko itzultzen da Luxemburgen mamua, dela Furio Jesi, dela Jodi Dean, dela César de

5 Furio Jesi, *Spartakus. Simbología de la revuelta*, Adriana Hidalgo: 2014 Buenos Aires. 103.-118. or.

6 Entzo Traverso, *Left-wing Melancholia. Marxism, history, and Memory*, Columbia University Press: 2016 New York. 35.-36. or.

7 Hannah Arendt, *op.cit.*

8 Georg Lukács, «Rosa Luxemburgo como marxista» in *Historia y conciencia de clase. Estudios de dialéctica marxista*, Ediciones Razón y Revolución: 2013 Buenos Aires.

Vicente Hernando. Leninekin berarekin intentsitate handiko eztabaidak izan zituen. Baina bere heriotzaren ostean, zera idatzi zuen Leninek:

Erantzun dezagun... errusiar fabula zahar eder batekin: batzuetan arrano batek oilo batek baino baxuago egin dezake hegan, baina oilo bat inoiz ezingo da arrano baten altuerara goratu. Rosa Luxemburg... bere akatsak akats... beti izan zen eta izango da arrano bat.

Eraldaketa soziala, antolakuntza politikoa edota gerraren eta kapitalismoaren aurkako mugimendua hain beharrezkoa dugun garaiotan Mikel Laboa eta Anariren zoologikoa aberastera dator, erren, ekialdeko Luxemburg kartzelako gutunokin.

Iruñea
2018ko urria

HITZAURREA

Ez naiz zehatz-mehatz gogoratzen noiz egin nuen topo Rosa Luxemburgek idatziko *Lettres de prison* (Editions Belibaste: 1969 Paris) liburuarekin, zenbaki biribilak arrotzak zaizkit, 1968 eta 1971 urteen artean izango zen agian.

Bagenekien Frantziako Gobernuak ez zuela ongi tratatzen Ipar Euskal Herria. Frantziako lorategi izendatu ondoren, Parisko aberatsen eta turismoaren menpe utzi zuten. Ezin zen fabrikarik eraiki, bertako biztanleak kanpora joatera beharturik zeuden lan bila. Hala ere Hegoaldekoentzat ezinbesteko zirrikitua izan zen gure Iparra, arnasa hartzeko espazio bat. Gu Francoren atzaparretan geunden harrapatuta.

Zeruko Argia astekariko «Herriak eta gizonak» atala zuzentzen zuen Rikardo Arregik. Han idazten genuen lagun guztiak, hilero ordaintzen zizkiguten 800 pezetekin Baionara joaten ginen Iparraldeko idazleekin elkartzera. Bertan *huntaz eta hartaz* mintzatu ondoren, frankismoak ezkutatzen zizkigun liburuen, astekariaren,

egunkarien eta zenbait berriren bila abiatzen ginen Baionako liburu-dendetara.

Gure ametsak ziren euskaraz idatzitako *Zer be-ri* egunkaria eta Euskal Herrian zehar zabaltzen ziren liburutegiak. Liburutegi horietako batean bazterrak miatzen niharduela, beheko aldean zegoen apal batean, –oso behean egongo zen, asko makurtu nintzela gogoratzen bainaiz oraindik ere– hizki beltzezko eta azal horiko liburu bat aurkitu nuen. Horia argiaren kolo-rea omen da.

Horrela gure Hegoaldeak Iparralde bat zue-la kontzientzia izanik, ezkutatutako zenbait berriren jabe; liburuz, astekariz, egunkariz zamatuta poliziez betetako muga itxurati bat igaro eta gero, Hegoaldera heltzen ginen.

Zoriari esker nire esku geratu zen azal hori-dun liburua. Gutunak irakurtzen niharduen heinean maitemintzen joan nintzen jakituriaz, samurtasunez, sentikortasunez eta lirikotasunez betetako eskutitz haietaz. Duela 38 ala 39 urte, euskarara itzuli nituen Nikaragua Sandinistan. Emeki-emeki, gutun haiek egilearen bizitza eta nortasuna ezagutzera eramán ninduten.

Jakin nuen...

...Frantziako langileek Pariseko Komuna alda-rrikatu baino egun batzuk lehenago jaio zela Rosa Luxemburg Zamoscen (Polonian) 1871n. Garai hartan Polonia zatiturik zegoen, Luxemburg Errusiako enpe-radoreen menpe zegoen Polonian sortu zen, familia judutar baten baitan. Erljioa alde batera utzita zeu-katen arren, Hannah Arendten esanetan Rosak beti mantendu zuen harremana kultura honi loturik zeu-den poloniar sozialistekin.

Etxean polonieraz eta alemanez mintzatzen ziren normalki, Rosak errusiera ere ongi ezagutzen zuen. Bere ama kulturadun emakumea zen eta etxean Alemaniako idazle klasikoak maiz irakurtzen ziren. Hautzarroan igarotako gaitz baten ondorioz herrentasun arin bat zeukan. Bere buruaz mintzo zenean: «ahate ibilera» zuela esaten zuen.

Hamasei urte zituelarik Poloniako Erreinuko Alderdi Sozialdemokrataren partaide egin eta handik bi urtera, 1889 urtean, espetxeratzeko zorian zegoelarik Suitzara ihes egin zuen. Apaiz bati esan zion bere maitarekin ezkontzeko bataioa hartu behar zuela, baina kontatu zion hori Polonian ezin zezakeela egin gurasoak aurka zituelako. Apaiz haren laguntzaz baserriaren baten gurdiaren saralearen azpian ezkutaturik Suitzara ihes egin zuen. Suitza garai hartako erbesterratu politikoen biltoki bihurtu zen, bertan Rosa Luxemburg-ek unibertsitateko ikasketak eztabaida politikoekin txandakatu zituen.

Zuricheko unibertsitatean (garai hartan gizon eta emakumeak berdintasunean ikasi zezaketen bakarreneretakoak zen) zientzia politikoetan doktore egin zen. Natur zientziak eta matematika ere ikasi zituen.

Suitza izan zen ere maitasuna aurkitu zuen lurraldea. Leo Jogiches ezagutu zuen. Leo, judutar jatorriko lituanier erbesterratuarekin 15 urte bizitu izan zen, denbora horren ostean bereizi egin ziren bizitza guztirako lankide politiko bihurtzeko.

Bere ikasketak bukatu ondoren Rosa Luxemburg Alemaniako Alderdi Sozialdemokratari sartu zen. 1897 urtean bere egoera errazteko alemaniar herritartasuna lortu zuen bere lagun Gustav Lubekeren semearekin ezkontuta, baina egun berean bereizi egin ziren. Bost urte igaro ondoren dibortziatu ziren.

Alderdi Sozialdemokratako propaganda ardura-duna zen Rosa, baina Clara Zetkin alderdikidearekin adostu zuen Clara emakumeen antolaketaz ardura-tuko zela. Dena den, elkarrekin zeuden Danimarkan Nazioarteko Emakume Sozialisten bigarren topaketak egin zirenean 1910 urtean. Bertan, beste gai askoren artean, Emakume langileen nazioarteko eguna izenda-tzea erabaki zuten, martxoaren 8a hain zuzen.

1916 urtean, ikusita Alemaniako sozialdemo-kraziak sozialismoaren printzipioak saltzen zituela, mugimendu espartakista sortu zuen Karl Liebknech-tekin batera, mugimendu hau Alemaniako Alderdi Komunistaren oinarria izan zen.

1919 urtarrilean, boltxebikeek Errusian Urriko iraultza irabazi eta handik bi urtera presondegitik irten eta Berlingo karrika batean erail zuten. Hala idatzi zion urte batzuk lehenago hemen biltzen dugun gutunetako batean: «Azken finean, (...) gusturago nago naturaz in-guratuta alderdiaren kongresu batean baino. Zuri esan diezazuket, zuk ez baituzu hau esanda sozialismoa sal-tzen dudanaren susmorik izango. Zuk badakizu hala ere nik nire lekuan hiltzearen itxaropena dudala: ka-riketako borrokan ala espetxean».

Amaia Lasa
Getaria, 2018ko iraila

KARTZELAKO GUTUNAK
SOPHIE LIEBKNECHTI

JATORRIZKO ARGITALPENARI SARRERA

Rosa Luxemburgek hiru urte eta lau hilabete egin zituen kartzelan gerra garaian: urte bete (1915etik 1916ko otsailera) Berlingo emakumeen kartzelan, Barnimstrassen, soldaduenganako tratu txarrei buruz Frankfurt am Mainen emandako diskurtso batengatik, eta hurrengo bi urte eta lau hilabeteak (1916ko uztailak 10etik 1918ko azaroak 10era) Berlingo, Wronkeko eta Breslaviako «babes kartzeletan».¹ Rosa Luxemburg kanpoko mundutik erabat isolatuta zegoen. Berarengana liburuak eta gutunak zentsura zorrotzaren ostean soilik irits zitezkeen. Hilean behin zorrotz zaindutako bisita bat izateko aukera zuen.

Proletarioen defendatzaile sutsuenaren indarra ahuldu eta isiltzea zen asmoa, kontzientziak pizten zituelako, gezurrari mozarroa kentzen zielako. Baina ez zuten lortu. Altzairuzko borondatea ez zen ikaratu.

1 *Schutzhaft* (babes kartzela) Lehenengo Mundu Gerra hasi eta gutxira ezarri zuten Alemanian Gobernuak epaitegien inolako kontrolik gabe gerrarentzat kaltegarriak izan zitezkeen pertsonak kartzelan sartzeko. [Ohar guztiak, bestelakorik adierazi ezean, itzultzailearenak eta editorearenak dira, alemanezko jatorrizkoarekin eta frantsesezko eta gaztelaniazko itzulpenetako edizioekin onduak.]

Kartzelaldian zehar Rosa Luxemburgek tai gabe lan egin zuen. Bakardadean etenik gabe pasatako gau eta egun horietan bere izpirituan eta ariman kontzentratu zituen indar guztiak. Jakintzarekiko zuen pasioarengatik bere ahotsak fanfarre batek bezala egin zuen oihartzun: «Junius»² en artikulu ospetsuak, kaiolatuta idatzi zituen, baina ez ziren kartzelatik ateratzea lortu zuten bakarrak izan. Rosa Luxemburgek jakin zuen bere lagun politikariei panfletoak, manifestuak eta *Spartakusbriefe*³ aldizkariko ekarpen funtsezkoak helarazten. Lan akigarri batekin eta korrespondentzia ilegal batekin bere kartzelako zeldatik saiatu zen Alemaniako langileen iraultzaren garapena zuzentzen.

Baina hemen ez dugu urte laugarri horietan Rosa Luxemburgek egin zuen lan zientifikoa ezta agitazio lana ere baloratuko. Hemen difamatutako emakume honen arima osoa erakutsiko diogu gazteriarri, langileei; beren ongizatearen eta askatasunaren alde borrokatu zuen, sufritu zuen eta hil egin zen Luxemburg. Hemen desagertu egin da bizitza pertsonalarenganako lotsa. Hauek ez dira jada gutun pribatuak. Rosa Luxemburg zientzialaria eta borrokalaria soilik ezagutzen duenak ez ditu ezagutzen bere izatearen alderdi guztiak. Bere kartzelako gutunek irudia osatzen dute. Rosa Luxemburgen jarraitzaileek eta borrokako kideek bere bihotz nekaezinaren aberastasuna ezagutzeko eskubidea dute. Ikusiko dute nola altxatzen den emakume hau bere sufrimendutik, Sorkuntzako izaki guztiak maitasun ulergarriz eta indar poetikoz besarkatzeko, nola uzkuratzen den bere bihotza txoriak kantatzen entzu-

2 «Junius» (Erromako errepublikaren sortzaileetako Lucio Junio Brutoren aldaera bat) ezizenarekin legez kanpo argitaratutako tesi gehienek *Sozialdemokraziaren krisia* zuten gaitzat.

3 *Espartakoren gutunak* 1916tik aurrera *Gruppe Internationales* argitaratutako gerraren kontrako ezkerreko aldizkari ilegal bat zen.

tean, nola egiten duten durunda poeta inspiratuenen bertsoek, nola jasotzen dituen bere baitan bere lagunen patuak eta eguneroko ekintzak. Hala, hilberriak eraiki zuen monumentua altxatuko dugu.

Editoreak
Berlin, 1920ko abuztua

[Postala] Leipzig, 1916ko uztailak 7

Nire Sonia txiki maitea:⁴

Gaur bero astun eta hezea egiten du, Leipzigen hain ohikoa dena: ez dut hemengo airea jasaten. Gaur bi orduz egon naiz parkeko urmaelaren ondoan eserita⁵ *Reichen Mann* irakurtzen.⁶ Istorio distiratsu bat da. Andretxo zahar bat aldamenean eseri zitzaidan, azalari begiratu eta irribarre egin zuen: «Liburu on bat izan behar du. Nik ere atsegin dut liburuak irakurtzea». Irakurtzera eseri aurretik, noski, parkeko zuhaitzak eta zuhaixkak aztertu nituen: denak ziren figura zahar ezagunak, pozik egiaztatu nuen. Ordea, jendearekin dudan tratuak gero eta gutxiago asetzen nau; uste dut aurki hartuko dudala erretiroa anakoreta batek bezala,

4 Bilduma honetako gutun guztia Sophie Liebknechti zuzenduta daude (ezkongabe zela Ryss abizena zuen, 1884-1964), artearen historialaria izan zen, Karl Liebknechten (1871-1919) bigarren emaztea. Luxemburgek errusierazko txikigarri ezberdinak erabiltzen ditu, hemen, alemanezko jatorrizkoan ez bezala, «Sonia» gisa bateratu ditugu, frantsesezko eta gaztelaniazko itzulpenetan bezala.

5 Bilduma honetako lehenengo gutuna askatasunean idatzi zuen. Luxemburg 1916ko uztailaren 10ean sartu zen kartzelan.

6 *The Man of Property* John Galsworthy nobelista eta antzerkigilearen (1867-1933) *The Forsyte Saga* trilogiako lehenengo nobela da.

San Antoniok bezala (baina tentaziorik gabe). Mesedez,
egon zaitez alai eta lasai.

Agur bero bat,

Rosa

Agurrak haurrei.

[Postala] Berlin, 1916ko abuztuak 5
Barnimstrasseko espetxetik⁷

Nire Sonia txiki maitea:

Gaur abuztuak 5, orain dela gutxi zure bi gutunak jaso ditut, biak batera: bata uztailaren 11koa (!) eta bestea uztailaren 23koa. Ikus dezakezun bezala, postari gehiago kostatzen zaio nigana iristea New Yorkera joatea baino. Bitartean zuk igorritako liburuak hartu ditut, bihotz-bihotzez eskertzen dizut guztiagatik. Zauden egoeran zu uztea asko kostatu zait. Zenbat gustatuko litzaidakeen, oraindik ahal bagenu, biok elkarrekin zelaietan zehar ibiltzea ala sukaldeko leihotik ilunabarra ikustea... Helmiren⁸ gutun bat jaso dut, bere bidaiaren xehetasun guztiak kontatzen dizkit. Mila aldiz eskerrak Hölderlinen⁹ liburuagatik. Baina ez duzu nigatik horrenbeste diru gastatu behar, pena hartzen dut. Berriro bihotzez eskertu nahi dizkizut igorri diz-

7 Ez zegoen akusaziorik bere aurka, baina atxiloteta prebentiboa aplikaturik Berlingo emakumeen kartzelan espetxeratu zuten. Argirik gabeko ziega zikin batean sartu zuten, ondoren Wronkeko gotorlekura eraman zuten.

8 Helmi Wilhelm da (1901-1975) Karl Liebnechtek bere lehenengo emaztearekin izandako semea.

9 Friedrich Hölderlin (1770-1843): tradizio klasikoa eta erromantizismoa batu zituen poeta liriko alemana.

kidazun gauza on guztiak, baita ilar usaintsuengatik ere. Lehenbailehen idatziezadazu, horrela, agian, zure eskutitza hila bukatu baino lehen jasoko dut. Maitekiro hartzen dut zure eskua. Ez utzi zure buruari hondoa jotzen. Izan kemena. Pentsamenduz zurekin nago. Goraintziak Karl eta haurrei.

Zure Rosa.

Pierre Loti zoragarria da.¹⁰ Besteak ez ditut irakuri oraindik.

10 Pierre Loti (1850-1923) gai exotikoak landu zituen nobelista frantsesa izan zen, bere garaian irakurriena izan zen autoreetako bat. Léo Delibesen *Lakmé* eta Puccininiren *Madama Butterfly* operetan bizi da gaur egun. Hamarnaka nobela idatzi zituen, tartean, *Ramuntcho* (1897) Ipar Euskal Herrian kokatua, bere lanetan iraultza bat izan zen. Ordura arte urruneko toki exotikoetan kokatu zituen bere liburuak, honakoan Iparraldeko erregionalismoa landu zuen. 1891etik zuen Lapurdirekin lotura itsas armadako kapitain zenean Hendaian lanean aritu zelako. Hantxe hilko zen 1923an, Lapurdi hegoaldean.

[Postala] Wronke, 1916ko abuztuak 24

Sonia maitea:

Zein penagarria egiten zaidan zugandik hurbil ez egotea momentu hauetan.¹¹ Baina otoi, burua zutik izan. Gauza asko aldatuko dira. Orain alde egin behar duzu, ez du axola nora, mendira, naturaren edertasunera, sendatuko zaituen leku bat aurkitu behar duzu. Ez du zentzurik zauden lekuan egon eta deprimitzen jarraitzeak. Oraindik asteak igaro daitezke azken instantzia baino lehen. Erregutzen dizut, alde egin ahal duzun bitartean... Ziur Karl bera ere lasaituko dela atsedean hartzen duzula jakiterakoan. Mila esker hिलaren 10ean igorritako gutunarengatik baita opari guztiengatik ere. Ikusiko duzu datorren udaberrian nola joango garen elkarrekin landan ibiltzera edo lorategi botanikora, hortaz pentsatzeak, jadanik pozten nau. Baina orain: alde egin Sonia! Ezingo al zinateke joan Konstantza lakuaren ertzera, hegoaldeaz pixka bat gozatzerara? Alde egin aurretik zu ikustea gustatu-

¹¹ Postal hau, bigarren instantziako tribunalak Karl Liebknechteri traizioagatik lau urte eta hilabete bateko espetxe zigorra ezarri zion egunean idatzi zuen. Azaroan sartu zen kartzelan.

ko litzaidake. Komandantziari baimena eska iezaiozu,
laster idatzi. Hala ere izan kuraia. Besarkatzen zaitut.

R.

Agur beroa Karlentzat.

Plazer handiarekin jaso ditut Helmi eta Bobbiren
gutunak.¹²

12 Helmi (1901-1975) eta Robert (1903-1994) dira, Karl Liebknechtek lehenengo emaztearekin izan zituen semeetako bi.

Wronke, 1916ko azaroak 21

Nire Sonia txiki maitea:

Mathilden¹³ bidez jakin dut zure neba gerran hil dela, bizitzak ematen dizun estualdi berri, gogor honek aztoratzen nau. Azken denboraldi honetan ez dago saihestu dezakezun nahigaberik. Eta orain ere ezin nauzu zurekin izan zu laguntzeko eta kuraia emateko! ...Zure amak ere asko kezkatzen nau. Nola jasango du berak ezbehar berri hau? Garai guztiz tristea bizi dugu, etengabe gehitu behar diogu izen bat, jadanik hain luzea den, hildakoen zerrendari. Egia da orain hilabete bakoitzak urte baten balioa duela, Sebastopolen bezala. Laster ikusiko zaitudalakoan nago, urduri nauzu zure zain nagoen bitartean. Nola jakin zenuen zure anaiaren heriotzaren berri, zure amaren bitartez ala zuzenean? Ba al duzu beste anaiaren berririk? Zerbait bidaltzea gustatuko litzaidake Mathilderekin, baina nik hemen kolore nabarreko zapi bat besterik ez daukat; agian barre egin araziko dizu, baina berak

13 Mathilde Jacob (1873-1943) Rosa Luxemburgen idazkaria zen. Ilegalki atera zituen kartzelako gutunak eta testuak. Theresienstadt-eko kontzentrazio esparruan hil zen.

esango dizu nik asko maite zaitudala. Ez utzi denbo-
ra asko pasatzen hitz bat edo beste idatzi baino lehen,
zure izpirituaren egoeraren berri jakin nahi baitut. Karl
agurtu, bihotzez.

Bihotzez besarkatzen zaitut.

Zure Rosa

Nire agurrik beroenak haurrentzat!

Wronke, 1917ko urtarrilak 15

...A! Zer une mingarria igaro dudan gaur. 3:19 minutuan lokomotorra baten txistuak ohartarazi nau Mathilde bazihoala. Murruaren sakonera korrika egin dut, kaiolatuta dagoen abere bat bezala, ohiko «ibilaldia» egin eta deseginez. Uzkurthurik neukan bihotza ni ere ezin nintzela joan konturatu naizenean. O! Nik ere alde egin nahi dut! Baina horrek ez du axola. Nire bihotzak kolpe bat hartu du, gero lasaitu da; ohituta dago esandakoa egiten ondo hesitutako txakur batek bezala. Ez dezagun nitaz gehiago hitz egin.

Gogoratzen al zara Sonia, zer asmo genituen gatazka bukatzen zenerako? Hegoaldera elkarrekin bidaiatzea. Eta egingo dugu! Badakit, zure ametsik kutunena dela nirekin Italiara joatea, zuretzat hori dela onena. Baina nik Korsikaraino eramango zaitut. Italia baino hobetagoa da oraindik. Han Europa ahaztuko duzu, Europa modernoa gutxienez. Imajina ezazu paisaia zabal bikain bat haranak eta mendi ingeradak zehaztasun handiarekin elkar ebakitzen. Goiko aldean haitz sail, soil, biluziak, nobleziaz betetako kolore grisduak; beheko aldean olibondoak, gerezi-erramu parokoak, ehun urteko gaztainak. Eta dena dago his-

toriaurreko isiltasun batekin inguratua: ez dago pertsonen ahotsik, ezta txorien oihurik ere, non edo non harrien artean labaintzen den errekaeren doinua dago ala goi-goian haitzen arrakalen artetik dabilen haizearen xuxurla, Ulisesen haize oihala puztu zuen berdina. Pertsonak aurkitzen dituzuenean paisaiarekin bat datozela ohartzen zara. Adibidez, bat-batean, bidearen bihurtze batean ilara bat agertzen da (korsikarrak beti ilaran ibiltzen dira, bata bestearen ondoren eta ez taldean gure laborariak bezala). Normalki ilara horietako batekin topo egiten duzunean lehenik zakur bat ikusiko duzu jauzika, gero pauso geldoan doan ahuntz bat ala gaztainaz betetako zakuez zamatutako asto txiki bat ikusiko duzu, jarraian mando handi bat, emakume bat saiheska eserita daramana, emakumeak hankak zintzilik izango ditu eta haur bat izango du beso artean. Andrea tente mantenduko da, altzifre bat bezain lirain, geldi. Bere ondoan gizon bizardun bat doa, pauso lasai irmoarekin. Biak isilik daude. Familia Santua ikusten ari zarela pentsa dezakezu. Une oro halako egoerak aurki ditzakezu. Horrelako ikuskizun baten aurren, hunkiturik, belaunikatzeko gogoia sentitzen nuen, nire gogoaren aurka. Hau da beti nire baitan sortzen zaidan sentimendua edertasun perfektuaren aurrean nagoenean. Korsikan Bibliak eta Antzinateak bizirik diraute. Neu joan nintzen bezala joan behar dugu: irla guztia oinez zeharkatuz, gauero leku desberdin batean lo eginez, goizetan nahiko goiz alde egingo dugu, eguzkia ateratzen den ordurako bidean egoteko. Proiektu hau ez al da erakargarria zuretzat? Zoriontsu izango naiz zure gidaria izanda.

Askok irakurri, izpirituekin ere aurrera egin behar dugu, eta zu hori egiteko gai zara: oraindik

gaztea eta malgua zara. Eta orain bukatu behar dut.
Egun alaia eta lasaia igaro.

Zure Rosa

Wronke, 1917ko otsailak 18

...Marthak¹⁴ labur kontatu dit nola Karl ikustera joan eta zer inpresio gogorra izan den zuretzat bera barrote atzean berrikustea, aspaldian ezerk ez nau hun-
kitu kontakizun horrek bezala. Zergatik ez didazu ezer esan? Nik zure sufrimendu guztien partaide izateko eskubidea dut, eta ez dut inork nire jabetzak murriztu ditzan nahi. Bestalde gertakizun honek, duela hamar urte, nire anaia-arrebak Varsoviako gotorlekuan ikusi nituenean gogorarazi dit. Han hari burdinez eginda-
ko kaiola bikoitz batean, alegia, kaiola handiago baten barruan dagoen kaiola txiki batean sartuta eraman ninduten eta bi hesi distiratsu horien artetik hitz egin behar nuen. Bisita hori sei eguneko grebaren ondoren gertatu zen, oso ahulduta nengoen, gotorlekua zuzen-
zen zuen kapitainak hitz egiteko lekuraino lagundu behar izan ninduen. Nire bi eskuekin eusten nion kaio-
laren barroteetatik, zoologikoko animalia basati baten itxura nuen. Kaiola gelako ertz ilun batean geratzen zen, nire anaiak bere aurpegia burdin hesira hurbildu eta «Non zaude?» galdetzen zuen behin eta berriro,

14 Martha Rosenbaum (1873-1942). Theresienstadt-eko kontzentrazio esparruan hil egin zen.

berak betaurrekoak garbitzen zituen malkoek ez ziotelako ikusten uzten. Zorionsua izango nintzateke orain Luckaneko kaiolan egongo banintz Karleri esperientzia hori saihesteko!

Eskerrak eman nire partez Pfemferteri¹⁵ Galsworthyren liburuarengatik. Atzo bukatu nuen, pozik nago irakurri dudalako. Hala ere, egia esateko, eleberri hau ez zait *The Man of Property* bezain atsegina iruditu, gai sozialak erabili arren ala agian horregatik hain justu. Nobela batean nahiago dut nolakotasun artistikoa, gai sozialak baino. Hain zuzen *The Man of Property* yn nekarazten nauena Galsworthyk erakusten duen izpiritua bera da. Honek ez zaitu harrituko. Baina Bernard Shaw eta Oscar Wilden estiloko idazlea da, egun estilo hori oso zabalduadago ingeles intelektualen artean: gizon oso argi bat, fina, baina gogaitua, munduan gertatzen den guztia eszeptizismo irribarretsu batekin begiratzen duena. Maiz algara ozenak botatzen ditut ikusirik nola Galsworthyk bere pertsonaiekin erabiltzen duen ironia sotila, asaldatu gabe. Hala ere, salbuespen bakanek izan ezik, ongi hezitako pertsona dotoreek ez diote inoiz isekarik egiten beren ingurukoek nahiz eta irrigarri ikusi, benetako artista batek ez ditu bere sortze lanak ironiaz begiratzen. Noski Sonia, honek ez du inolaz ere baztertzen estilo handiko satira, Gerhard Hauptmanneren¹⁶ *Emanuel Quint* bezala adibidez, azken ehun urteetan gizarte modernoaz idatzi den satirarik eztenkarena dena. Baina Hauptmannek berak ez du iririk egiten. Azken finean bera hor dago, ezpain dardartiekin eta bere begi handi irekietako

15 Franz Pfemfert (1879-1954), idazlea eta argazkilaria.

16 Gerhart Hauptmann (1862-1946) antzerkigile eta nobelista naturalistaren *Der Narra in Christo Emanuel Quint* lanaz ari da. 1912an Nobel saria jaso zuen.

malkoen dirdirarekin. Galsworthy aldiz, bere aipamen espiritualekin, gau batez festa batean izan dezakedan mahaikide bat bezala irudikatzen dut, egongelara afaltzera sartzen den gonbidatu bakoitzari buruz belarrira ohar maleziatsuak xuxurlatzen dizkizuna.

Gaur igandea da berriro, egunik makurrena espetxeratuentzat eta bakardadea jasaten duten guztientzat. Triste nago, baina bihotzez opa dizuet ez zuk eta ez Karlek ez dezazuela sentimendu bera izan. Laster idatzi noiz eta nora zoazen esanaz.

Bihotzez besarkatzen zaitut. Agurrik kutunenak haurrentzat.

Zure Rosa

Pfemfertek beste liburu onen bat bidaliko dit? Behar bada Thomas Mannek idatzitakoren bat? Oraindik ez dut idazle honen ezer irakurri. Mesede bat eskatu behar dizut oraindik, eguzkiak itsutu egiten nau ateratzen naizenean. Postaz bidaliko al zenidake puntutxo beltzeko belo beltz metro bat? Mila esker aurrez.

Wronke, 1917ko apirilak 19

Atzo pozik jaso nuen zure gutuna, nahiz eta aire tristea zuen. Orain, biziki nahi nuke zugandik hurbil egon, barre eginarazteko, lehen Karlen atxiloketaren ondoren bezala. Gogoratzen al zara? Fürstenhof kafetegian gure ezorduko algara zaratatsuekin nola erakartzen genuen jendearen arreta. Hala eta guztiz ere, zer une ederrak pasa ditugun! Egunero, goiz, Potsdamer Platzera abiatzen ginen, gu espexera eramango gintuen auto baten bila, loretan zegoen Tiergarten¹⁷ parkea inguratu Lehrter kale lasaira iritsi arte, bere zumarrak pasa ondoren heltzen ginen espexera, itzulterakoan normalki, Fürstenhofen geratzen ginen, maiz ere nire etxera etortzen zinen ere, Südendera, han maiatzeko hilabetea bere bikaintasun osoarekin sortzen zen; ordu atseginak igarotzen genituen sukaldean, han Mimik¹⁸ eta zuk nire sukaldaritzaren emaitzak eramanez itxaroten zenituzten, mantel zuriko mahai txikiaren aurrean (gogoratzen al zara zein onak zeuden *haricots verts à la parisienne* horiek?¹⁹) Eta nik eguraldi

17 Tiergarten: gaur egun ere Berlin erdialdean dagoen parke eder bat da, Alemaniako hirietako parkerik handiena eta ezagunena.

18 Mimi Rosa Luxemburgen katua zen.

19 Paristar erara egindako leka berdeak.

eder, egonkor, eguzkitsu bero haren oroimena bizirik gordetzen dut; horrelako egunei esker, soilik, udaberriaren alaitasuna sentitzen dugu. Gero arratsaldero, bat bera ere huts egin gabe, zure gela txikira joaten nintzen zu ikustera. Atsegina egiten zitzaidan hain ondo dihoakizun etxeoandre lanetan ikustea, zure gazte irudiarekin mahaitik hurbil tea ateratzen zenuenean. Azkenik, gauerdian elkarrekin gindoazen gure etxetara, batzuetan batek beste laguntzen zuen, besteetan besteak bata karrika ilun usaintsuetan. Gogoratzen al zara Sündendeko gau zoragarri hartaz, nik zure etxera berriro laguntzen zintudanean nola pinaziak askatzen zituzten beren soslai garbi eta beltzak zeru urdin leunaren gainean etxeei Erdi Aroko gaztelu-dorreen itxura emanaz?

Sonia, nik zugandik hurbil egon nahi nuke beti, zu distraitzeko, berbetan ala isilik egoteko zurekin, ez zaitezen berriro erori zure pentsamendu ilunetan, zure etsipenean. Zure gutunean galdera hau egiten duzu: «Zergatik da dena den bezalakoa?» Haurra zara oraindik, bizitza «horrela» izan da betidanik, sufrimendua, bereizketa, nostalgia dena batera? Den bezala hartu behar da bizitza eta horrela ondo dagoela pentsatu. Hori da gutxienez nik egiten dudana, jakituria hau ez da meditaziotik sortutako fruitua, nire izaeratik baizik. Senarengatik sentitzen du hau dela bizitza ulertzeko modu bakarra, hala gertaerak edozein direlarik benetan naiz zorionsua naiz. Nire oraingo eta iraganeko bizitzaz ez nuke ezer ezabatuko, aldatuko. Gutxienez bizitza era horretan ikustera lagundu ahal bazintuzket!

Oraindik ez dizkizut eskerrak eman Karlen argazkiagatik. Poz handia eman didazu. Nire urtebetetzean eman zenidakeen oparirik ederrena zen. Nire aurrean dago, mahai gainean ongi laukituta, ez dit

begiradarik kentzen (ohartu al zara, badira argazki batzuk begiekin jarraitzen zaituztenak zoazen lekura zoazela). Argazkiak Karlen antza handia du. Nola poztuko den Karl Errusiatik datozkigun berriekin! Eta orain arrazoi pertsonal bat duzu pozik egoteko. Orain ez luke eragozpenik egon behar, zure ama zu ikustera joateko. Hortaz pentsatu al duzu? Eguzki asko eta beroa opa dizkizut. Hemen oraindik pinportak besterik ez daude, atzo harria bota zuen. Jakin nahi nuke nola dagoen Súdendeko «hegoaldeko paisaia». Iaz alanbre sarearen aurrean geratu ginen une batez, zuk landaretzaren naharotasuna miresten zenuen.

Ez kezkatu gehiegi eskutitzak idaztearekin. Neuk sarritan idatziko dizut, nahikoa dut zuk posta txartel batean zerbait idaztea. Ahal dituzun ateraldi gehienak egin, botanika asko ikasi. Nire loretxoa eraman al duzu? Konfiantza izan, lagun maitea, dena ondo joango da, ikusiko duzu.

Maitekiro besarkatzen zaitut.

Bihotz bihotzez, beti zurea.

Rosa

Wronke, 1917ko maiatzak 2

...Joan zen apirilean, gogoratzen bazarete, telefonoz deitu zintuztedan bioi eta galdetu nizuen ea nirekin etorriko zineten hamarretan lorategi botanikora, urretxindorrak ematen zuen benetako kontzertua entzutera. Basotxo sarri baten atzean ezkutaturik, harri gainean eseri ginen, ibaixka baten aldamenean. Urretxindorren kantuen ondoren bat-batean dei kexati bat entzun genuen beti nota berdinarekin: «gligligligliglik» moduko bat. Nik orduan uretako txori baten garrasia zela pentsatu nuen, uretako txori batena, Karl ere nire uste berdinekoa zen, baina ez genuen jakin zehazki zein hegazti zen. Eta hara! Duela egun batzuk, egunsentia zela, hemendik gertu bat-batean oihu kexati bera entzun nuen. Atsedetik gabe bihotza saltoka nuelarik, jakin nahi izan nuen zein txori zen hura. Ez dut atsedetik egin aurkitu dudan arte: ez da uretako hegazti bat, lepitzuli bat da, okilaren familia-koa da, grisa. Ez da txolarre bat baino lodiagoa, bere izena memento arriskutsuetan etsaiak izutzeko egiten dituen keinu barregarrietatik eta buruaren bihurritzetik datorkio. Bere mingain itsaskorrarekin harrapatzen dituen inurriekin bakarrik elikatzen da, hartz inurri-

jaleak bezala. Horregatik espainiarrek «hormiguero» deitzen diote, txori inurrijalea. Bestalde, Mörrikek²⁰ txori honi umorezko poema xarmagarria eskaini zion, gero Hugo Wolfek musika jarri zion. Ahots kexatia duen txoriaren izena ezagutu dudanetik opari bat jaso banu bezain zoriontsu sentitzen naiz. Idatzi al diezaiokezu Karli aurkikuntzaren berri emateko? Ziur poztuko dela.

Zer irakurtzen ari naizen? Natur zientzietako liburuak batez ere: botanika eta zoologia. Adibidez, atzo jakin nuen zein arrazoiengatik desagertzen ari diren txori kantariak Alemaniatik: lur estentsiboan hazkundearen hedatzeak –basozaintzak, baratzak, nekazaritza– emeki-emeki habiak egiteko eta elikatzeko lekuak suntsitu dituzte (enbor barne hutsak, lugorriak, sasitzak, lurra estaltzen duten hosto ihartuak). Tristezia handiarekin irakurri dut hori. Nik ez dut bereziki txorien kantuaz eta honek gizakiengan duen eraginean pentsatu, baina erremediorik gabe babesgabeko izaki hauen desagertzea horrenbesteko mina eman zidan negarrez hasi nintzela. Zurichen irakurri nuen Sieber²¹ irakasleak idatzitako liburu errusiar batez gogoratu naiz, Ipar Ameriketako azal-gorrien desagertuari buruzkoa da, haiek ere gizon zibilizatuek ehizatu zituzten poliki-poliki beren lurraldeetan, heriotzara zigortu zituzten era isil eta anker batean.

Baina gaixo egon behar dut orain guztiak asko eragiten didalako. Ba al dakizu batzuetan pertsona ez naizenaren sentipena dudala? Emakume irudia hartu duen txori bat ala bestelako abere bat naizela uste dut. Azken finean, lorategi baten txokoan nire etxean nagoela sentitzen dut, hemen bezala edo zelaian belar

20 Eduard Mörike (1804-1875), *Zur Warnung*. Hugo Wolf (1860-1903), *Mörrike-Lieder*, 29. zkia.

21 Nikolai Ivanovitx Sieber (ala Ziber), 1844-1888.

gainean bezala, erlastarrez inguratuta, gusturago nago naturaz inguratuta alderdiaren kongresu batean baino. Zuri esan diezazuket, zuk ez baituzu hau sozialismoa saltzen dudanaren susmorik izango. Zuk badakizu hala ere nik nire lekuan hiltzearen itxaropena dudala: karriketako borrokan ala espetxean. Baina nire baitan hurbilago nago nire txolarreengandik «burkideengandik» baino. Eta ez da naturan babesa, deskantsua aurkitzen dudalako, euren barrenean huts egin duten hainbeste politikarik bezala. Alderantziz, naturan ere biziki mintzen nauten egoera ankerrak topatzen ditut. Adibidez, oraindik gogoan dudan abentura txiki bat kontatuko dizut. Joan zen udaberrian landatik ibilaldi batetik nentorrela, bide lasai eta bakarti bat jarraitzen ari nintzelarik, lur gaineko orban txiki ilun batek nire arreta erakarri zuen. Makurtu ondoren drama isil baten lekuko izan nintzen. Kakalardo lodi bat bizkar gainean zetzan inurritxo aldra batengandik alde egin nahian, alferrik ahalegintzen zen, inurriek saldoka inguratzen zuten, bizirik irentsi nahi zuten. Lazturaz dardarka nire musuzapia atera ondoren munstro haiek ehizatzen hasi nintzen. Baina borroka luze bat izan nuen inurri haiekin, nekaezinezko gogortasunez eusten baitzuten zomorro gaixoa. Azkenik biktima gizajoa askatu eta belar gainean ipini nuenean jadanik bi hanka janda zituela ohartu nintzen. Alde egin nuen mesede handirik egin ez nion sentimendu mingarriarekin.

Ilunabar luzeak hasi zaizkigu berriro. Normalki, egunaren ordu hauek atseginak zaizkit. Sündenden zozo pilo bat zeuden; hemen ez dira agertzen eta isilik daude momentuz. Negu guztian zozo bikote bat elikatzen jardun dut, baina joan egin dira. Eskuarki, ilunabarretan Sündendeko kalean geldiro paseatzen nuen. Ikuskizun zoragarria zen gasozko kale-argien sugar zuri-gorriak

ikustea, egunaren azkeneko argi ubel distiratsuen aurrean lotsati ziruditen beiraren atzean. Karrikan atezain baten irudia lerratzen da, arin neskamearen etxera sartzen da edo okinarengana ala harakinarengana korrika zerbait erostera doa. Nire lagunak diren zapatariaren haurrak kanpoan jolasten jarraitzen dute ilunduta dagoen arren, kaleko ertzetik ahots indartsu batek deitzen dien arte. Ordu honetan atsedetik hartu ezin zuen zozo bat zegoen beti, bat-batean garrasi zorrotzak botatzen zituen edo berritsukerietan jarduten zuen gaizki hezitako haur batek bezala eta zuhaitzetik zuhaitzera hegan zebilen zarata handia egiten. Ni karrikaren erdian geratzen nintzen lehenengo izarrak zenbatzen. Ez nuen etxean sartzeko gogorik, ez nuen ilunabarreko giro atsegin hura utzi nahi: egunak eta gauak emeki-emeki bat egiten duten unea.

Sonia, laster idatziko dizut berriro. Izan konfiantza, dena ongi joango da Karlentzat ere. Laster arte eta hurrengo gutunera arte!

Besarkatzen zaitut.

Zure,

Rosa

Wronke, 1917ko maiatzak 19

...Zer ikuskizun zoragarria! Hemen, dena landarez, lorez beteta dago. Gaztainondoak beren apaindura oparo freskagarriz birjantzi dira, andere-mahatsek izar txiki horiak dituzte, hosto gorrixkak dauzkan gereziondoak loretan dago jadanik eta elorria laster hasiko da. Gaur Luise Kautsky²² ni ikustera etorri da, alde egiterakoan oroiloreak eta pentsamendu pilo bat utzi dizkit, landatu egin ditut. Marra zuzen batek berezitako bi talde txikitan ipini ditut, pentsamenduak eta oroiloak txandaturaz. Ia ezin dut sinetsi, lehenengo aldia da landatzen dudala eta dena ongi gelditu da. Mendekosterako nire leiho aurrea lorez beteta izango dut.

Hemen txori berri andana dago. Egunero, inoiz ikusi ez dudan espezie berri bat ezagutzen dut. Gogora-

22 Luise Kautsky (ezkongabe zela Ronsperger, 1864-1944) USPD Alderdi Sozialdemokrata Independenteko kide nabarmenetako bat izan zen eta baita Karl Kautsky filosofo, kazetari eta teorialari marxistaren emaztea ere. Intentsitate handiko korrespondentzia izan zuen Luxemburgetik eta 1923an argitaratzea erabaki zuen, beren harremana azaltzen zuen hitzaurre eta hitzoste batekin. 1929an Rosa Luxemburg gogoan zuen liburu bat idatzi zuen. Auschwitzeko kontzentrazio esparruan hil egin zen. Marx, Lafargue, Murray edota Boudin-en lanak alemanera itzuli zituen.

tzen al zara, goiz hartaz, Karlekin batera urretxindorra entzutera Lorategi Botanikora joan ginenean, neurrigabeko zuhaitz bat ere ikusi genuen historik gabea, baina lore zuri txiki distiratsuz erabat estalia zegoen. Buru hauste ederra izan genuen zer zuhaitz mota zen jakin nahian, ziur baikin ez zela fruta-arbola eta loreak bitxi xamarrek ziren. Orain badakit! Zurzuri bat da eta «loreak» hosto berriak besterik ez dira. Bai! Zurzurien hosto helduak azpialdea zuria eta behealdea berde iluna dute, berriak aldiz bi aldeetatik ilaun zuriz gaineztatuta daude, eguzkitan lore zuriak balira bezala distiratzen dute. Mota honetako makal handi bat daukat nire lorategi txikian eta txori abeslari gehientzat gogokoena da, bertan kokatzen dira beti. Gogoratzen al zara egun hartan zuek biok nola igaro zenuten arratsaldea nirekin? Hain eguraldi ederra egiten zuen! Orrialde batzuk ozenki irakurri genituen, gauerdian, agur esateko momentuan, jasmín usain zoragarria sartzen zen irekita zegoen leihotik, nik hainbat maite dudan poema espainiar hau irakurri nizuen:

*Goraipatua izan bedi mundua sortu duena!
 Bere bidez bikaintasuna edonon gauzatzen da!
 Berak sortu du itsasoa eta bertako hondorik gabeko
 leizeak,
 berak sortu itsasontziak zeharkatu ahal izateko.
 Berak sortu paradisua eta argi ezilkorrak.
 Berak sortu du lurra eta zure aurpegia!²³*

A! Sonia, ez baduzu poema hau Wolfek musikatua entzun, ezin duzu ulertu zein grina sutsua gordetzen duten azkeneko bi hitz soil horiek.

23 Berez Toscanako olerki herrikoi bat da. Paul Heysek (1830-1914) itzuli zuen alemanera eta Hugo Wolfek abesti bat egin zuen (*Italienisches Liederbuch*, 4. zkia).

Idazten dizudan une berean erlastar lodi bat sartu berri da gelan, bere ahots apalez dena betetzen du. Zein ederra den! Zer bizi poz sakona adierazten duen musika honek non garrak, udarako beroak eta loreen usainak dardararazten duten.

Sonia, izan konfiantza, arin-arin idatz egidazu. Faltan zaitut.

Zure,
Rosa

Wronke, 1917ko maiatzak 23

...Zure azken gutuna, 14koa, nik nirea igorri dizudanean heldu da. Oso pozik nago gure postazko harremana berriro berrartu dugulako, Mendekostea dela eta nire besarkada beroa igortzen dizut.²⁴ «Hemen da Mendekosteko garai atsegina» horrela hasten da Goetheren *Reineke Fuchs* olerkia. Pozbideren bat aurkituko duzulakoan nago. Joan zen urteko Mendekoste garaian, txango ederra egin genuen Lichtenradera, Mathilde [Jacob]ekin batera, ibilaldi hartan galburuak jaso nituen Karlentzat, baita baita urkiaren gerbak zeuzkan adar zoragarri hura ere. Ilunabarrean Süden-deko landara paseatzera joan ginen gainera, arrosak eskuetan harturik «Ravennako hiru dama nobleak» bezala.²⁵ Hemen lilak loretan daude jada, gaur bertan loratu dira. Hainbeste bero egiten du muselinazko soineko arinena jantzi behar izan dudala. Eguzkia eta beroa egiten duen arren, nire txori txikiak bata bes-

24 Euskal Herrian ez bezala, Mendekoste jaiak Alemania eta Europako beste herrialde batzuetan ez du soilik esanahi erlijioso bat: egun bat baino gehiago irauten duen udaberriko jai izaten da.

25 Anselm Feurebach-en (1829-1880) *Dante mit den edlen Frauen von Ravenna* koadroari aipamena.

tearen ondoren isildu dira. Oso lanpetuta daude beren arrautzak txitatzen, emeak habian geratzen dira, arrak mokoekin elikadura bilatzen dute berentzat eta beren bikotekideentzat. Landan ala zuhaitz handietan egiten dituzte habiak eta nire lorategitxoak isilik dago. Noizbehinka urretxindorrek nota batzuk abesten ditu, txorruak bere pausoak durundarazten ditu eta txontak azken xaramela botatzen du ilunabarrean, nire amilotxak ez dira gehiago azaltzen. Atzo niri zuzendutako dei oso labur bat besterik ez nuen entzun, urrutitik zetorren, amilotx urdinarena zen, guztiz hunkituta sentitu nintzen. Ba al dakizu amilotx urdinak ez dituztela neguak hemen igarotzen? Baina gurera itzultzen dira martxoaren bukaeran. Lehen horietako bat nire leihotik hurbil kokatzen zen. Ertzeraino etortzen zen bere lagun batekin, ausart bere «tzitzi baaa» irrigarria botatzen zuen, baina hainbeste luzatzen zuen gaizki hezitako haur baten trufa zirudiela eta aldi bakoitzean ezin izaten nuen barrea saihestu eta tonu berdinarekin erantzuten nion. Gero maiatza hasieran beste txoriekin joan zen txitatzera, naturako beste toki batera. Astee-tan ez du bizi den seinalerik eman. Atzo, bat-batean gure patioa eta espetxeko lurrak bereizten duen hormaren beste aldetik, oi-hu ezaguna entzun nuen, baina guztiz ezberdina zen, hiru nota labur arin ziren, bata bestearen ondotik: «tzitzi baaa, tzitzi baaa, tzitzi baaa», eta gero isiltasuna. Uzkururik neukan bihotza urrutiko dei laster hura entzutean, txori baten historia txikia laburtzen zuena. Amilotxak udaberri aurreko gorteiatze garai ederra gogorarazten zidan, egun osoa abesten pasatzen zueneko: orain egun osoa hega egiten ari-zen da, bera eta familia elikatze-ko eltxoak ehizatzen, oroimena besterik ez zait geratzen: «Ez dut denborarik. A! Atsegina izan zen. Udaberria bukatzen ari da. Tzitzi

baaa, tzitzi baaa, tzitzi baaa». Ziurtatzen dizut Sonia, txori baten oihu txikiak sakonki hunki nazakeela, hain da adierazkorra. Nire amarentzat Biblia, eta Schiller²⁶, jakituriaren iturririk gorenena zen, konbentzituta zegoen Salomonek txorien hizkuntza ulertzen zuela. Nik hamalau urteko ikuspuntu zientifiko eta modernoarekin, irribarre egiten nuen amaren uste inozoaren aurrean. Orain, Salomon erregea bezalakoa naiz, nik ere txori eta abereen hizkuntza ulertzen dut. Noski, nire txoriek ez dituzte pertsonen hitzak erabiltzen, baina nik beren erara adierazten dituzten sentipen desberdinen xehetasunak jasotzen ditut. Entzumen zakarra duen pertsona axolagabeak soilik pentsa dezake txorien kantua beti berdina dela. Abereak maitatu eta ulertzen badituzu, adierazpenen aniztasuna aurkitzen duzu, benetako hizkuntza bat. Orain harrigarria da udaberri aurreko asteetan entzuten den zaraten ondoren erabateko isiltasuna datorrela. Udazkenean oraindik hemen banago –oraingoz hala dirudi– badakit nire lagun guztiak etorriko direla leihora beren elikagaien bila. Jadanik pozten naiz, amilotx urdina berriro ikusteaz, adiskidetasun berezi batek elkartzten gaituelako.

Sonia, haserretu egiten zara ikusirik nola luzatzen den nire espetxe aldia eta zera diozu: «Zergatik dute pertsona batzuk beren berdinen etorkizuna erabakitzeko boterea? Zer esan nahi du guzti honek?». Barkatu egidazu baina zure gutuna irakurtzerakoan ezin izan dut barre ozenki egitea ekidin. Dostoievskyk idatzitako *Karamazov anaiak* liburuan bada pertsonaia bat, Xoxlakova anderea, tankera honetako galderak

26 Friedrich Schiller (1759-1805) poeta, antzerkigile, filosofo eta historialari klasiko alemana, Goetherekin batera alemanezko antzerkigile nabarmenenetako bat da.

egiten dituena, inguruan dituen kideak harridurazko adierazpenarekin begiratzen ditu gainera, erantzuna jaso baino lehen, beste gai batera pasatzen da.²⁷ Nire txori txikia, zibilizazioaren historia guztia, estimazio apalenak kontuan izanik, duela 20.000 urte sortu zena, «gizaki batzuk beren berdinaren gainetik erabakitzeke duten boterean oinarriturik dago» eta hori baldintza materialei sakonki loturik dago. Gauzen ordena eboluzio mingarri batek soilik alda lezake eta gu gaur egun garai ekaiztsu horietako baten aurrean gaude, eta zuk galdetzen duzu zertarako balio duen honek guztiak. «Zertarako» ez da bizitzaren eta bere formentzako kontzeptu egoki bat. Zertarako daude munduan barna amilotx urdinak? Nik ez dakit ezer baina pozten naiz haiek hemen egoteaz. Pozbide gozo bat sentitzen dut bat-batean hormaren gainetik «tzitzi baaa» dei laburra entzuten dudanean.

Bestalde garrantzi handiegia ematen diozu nire «jakituriari». Zoritxarrez, nire barne oreka eta bizipoza pikutara joan daitezke itzal batek, nahiz eta txikia izan, estaltzen banau. Orduan oinaze izugarria dut, eta nire berezitasuna da isiltzen naizela. Ez dizut gezurrik esaten Sonia, ezin dut hitz bat bera ere ahoskatu. Adibidez, azken egun hauetan hain lasai, hain zoriontsu nintzen, eguzkiak ematen zidan poz guztiarekin, eta joan den astelehenean bat-batean, ekaitz izoztua nagusitu zen nire baitan eta nire zorion alaia nahigabe sakonenera aldatu zen. Beraz nire pozak pertsonen forma hartu balu eta nire aurrean aurkeztuko balitz nire etsipen guztia, doi-doi, begirada mutu batez adieraziko nion. Egia esan, gutxitan sentitzen dut hitz egiteko gogoia, asteak igarotzen ditut nire ahotsaren doinua entzun gabe. Hau dela eta Mimi ez ekartzeko erabaki

27 Bigarren atala, laugarren liburua, IV.

heroikoa hartu dut. Animalia txikia alaitasunean, giro pozgarrian, bizitzen ohituta dago, zoriontsua da nik abesten edo barre egiten dudanean edo etxe guztian kukuka jolasten dugunean; hemen, bera, neurasteni-koa bihurtuko litzake. Beraz Mathilderekin utzi dut. Egun batzuk barru Mathilde ni ikustera etorriko da, espero dut bere bisitak berrindartuko nauela. Agian Mendekostea «jai atsegina» izango da niretzat ere. Sonia, izan konfiantza, dena ondo joango da, sinetsidazu. Goraintzi adiskidetsuak Karlentzat. Behin eta berriz besarkatzen zaitut.

Zure

Rosa

Mila esker argazki ederrarengatik.

Wronke, 1917ko maiatzaren bukaeran

Sonia, ba al dakizu non nagoen? Nondik idazten dizudan gutun hau? Lorategitik! Mahai txiki bat atera dut kanpora arrastaka, bi zuhaixka orlegiren itzalpean eserita nago. Nire eskuinean iltze kanelaren antzeko usaina duen andere-mahatsa daukat, eta nire ezkerrean binorri multzo bat; nire gainean astigar batek eta gaztainondo gazte batek beren esku zabalek beren esku orlegiak harilkatzen dituzte, nire aurrean lertxun zuri luzeak bere hostoak era apal eta babesgarran mugitzen ditu, poliki. Nere paperaren gainean hostoen itzal arinak dantzan ari dira eguzkiaren distira txikiekin, oraindik euriz bainatutako hostotzatik tantak erortzen dira noizbehinka nire aurpegira eta eskuetara. Meza ospatzen da presondegiko kaperan, organoaren musika era nahasian iristen zait, estalia geratzen da hostoen marmarrarengatik eta alai dauden txorien koruarengatik. Urrutian kukuaren deia entzuten dut durundan. Zein ederra den! Zein zoriontsu naizen! Jadanik, ia San Juan giroa dago: udara bere dirdai guztiarekin eta bizitzeko mozkortasunarekin. Ezagutzen duzu Wagnerren *Maisu abeslari*akenesen

na hura, herriarena, jendetza batek txaloka «¡San Juan eguna!» oihukatzen duena eta, bat-batean antzinako vals bat dantzatzen hasten direna?²⁸ Horrelako giroa izan dute egun hauek niretzat.

Atzo, hainbat gauza gertatu zitzaizkidan. Kontatu behar dizkizut. Goizaldean, bainugelako leihoan gaueko tximeleta handi bat aurkitu nuen. Egun batzuk eramango zituen han, behin eta berriro beira jotzen, erabat nekatuta zegoen. Ez zuen bizi imintziorik egiten hegoen mugimendu ahula salbu. Han zegoela ohartu nintzenean, laster jantzi nintzen dardarka ezin-negonagatik, leiho gainera igo nintzen, esku artean tentuz hartu nuen. Ez zen gehiago defendatzen, hilda zegoela uste nuen. Nire leiho ertzean ipini nuen bere onera etorriko zen itxaropenarekin; bazirudien bizi gara berpiztuko zitzaiola, baina tximeleta geldi geratu zen berehala. Jaten eman nahi izan nion eta lore zimeldu batzuk antenen aurrean ipini nizkion. Une berean txinboa pozez gainezka jarri zen leiho aurrean kantari. Ezin izan nuen ozenki esatea saihestu: «Entzun alai kantatzen duen txori txiki hori. Horrek bizi pixka bat itzuli beharko lizuke!» Nik bakarrik egin nion neure bueruari barre erdi hilik zegoen tximeletari errieta egiten niolako. Alferrikako hitzak zirela pentsatu nuen, eta ez zutela ezertarako balio. Ordu erdi beranduago, abere txikia indarberritu zen, adoretzu hegan egiten hasi zen emeki. Hain zoriontsu nengoen bizitza salbatu niolako! A ze gertakizuna.

Bazkalondoan lorategira itzuli nintzen. Bertan zortzietatik eguerdiko hamabiak arte egon nintzen, bazkaltzera deitzen nauten arte, eta hiruretatik seiak arte geratu nintzen. Eguzkiaren zain nengoen; aterako zenaren bihozkada nuen. Baina ez zen agertu, tristeziak

28 Bigarren ekitaldia, lehenengo eszena.

gainditu ninduen. Paseoak eman nituen lorategian. Haize arina zebilen eta ikuskizun xelege bat nekusan. Lertxun zuriak gerba helduak askatzen zituzten, eta ale bilodunak airean zabaltzen ziren. Airea elur maluten antzeko zerbaitekin betetzen hasi zen eta lurra eta patio osoa estaltzen zuten. Hegaldakutzen zihoan biloxka horrek bazuen zerbait fantasmagorikoa. Lertxun zuriak beste zuhaitz gerba-emaileen ondoren loratzen da, beren haziak oso urruti hedatzen ditu, belar txarra bezala ernatzen da beraz, hormen arrailduretan ala harri artean.

Egunero lez, seietan berriro giltzapetu naute. Leiho ondoan eseri naiz, burua astun neukan airea itogarria zelako. Gora begiratu nuen zero hits urdinera, maluta itxura zuten hodeien azpitik enarak zorabiatzeko moduko garaieran zihoazen hegan beren hego zorrotzez airea mozten. Luze gabe gabe zerua ilundu zen, hots guztiak isildu ziren, ekaitza lehertu zen zaparrada indartsuak isuriz, zerua eta lurra ikaran ipini zituen bi trumoi hotsek, bortitz jo zuten. Orduan ahaztu ezin den ikuskizun baten lekuko izan nintzen. Jadanik ekaitza urrunduta zegoen, zeruak gris ilunez margotu zen; ilunabar espektral bat ikusi genuen, kolore apalekoa, lurraren gainean; zapi gris lodi batzuk zerutik zintzilik egongo balira bezala. Euriak tanta jario gozo etengabeak botatzen zituen hostoen gainean; une batetik bestera purpura koloreko argi izpi meheek sutu zuten berun gris koloreko zerua, trumoiak urruti zeuden, eta burrunbak hondartzara hiltzera doazen azken olatuak bezalakoak ziren. Bat-batean mamu itxurazko paisai horren erdian, urretxindorraren kantua durundi egin zuen astigarraren gainean, nire leiho aurrean. Euriaren erdian, ekaitzen argi mehearen eta trumoiaren artean, hoskera argia zuen kanpaia baten soinua zuen.

Txoriak mozkor balego bezala kantatzen zuen, deabrutua balego bezala, bere ahotsarekin trumoiaren soinua estali zuen, ilunabarra argitu nahi balu bezala. Ez dut inoiz gauza ederragorik entzun. Zeru hondoaren gainean gris beruna eta purpura kolorea txandatzen ziren, bere kantua zilarra bezain distiratsua zen. Guzti hau hain zen misteriotsua, sinetsi ezinezko edertasuna zuela. Eta nik, oharkabea, Goetheren poema baten azken bertso horiek errepikatu nituen: «O! Hemen egongo bazina!»²⁹

Beti zurea,
Rosa

29 Goetheren olerkia *Nähe des Geliebten* (Maite duzunarenganako hurbiltasuna) da.

Wronke, 1917ko ekainak 1

...Ondo ezagutzen ditut orkideak. Frankfurt am Maineko berotegi zoragarri horretan sail oso bat daukate. Urte beteko espetxe zigorra eman zidan epai-ketaren ondoren, sakon ikertu nituen egun batzuetan. Beren grazia arinak, forma bitxi bikainak, badute gauza birfindu, dekadente bat. Markesa hautsezatu eta delikatuek sortzen didaten inpresio bera sortzen didate. Nik miresten ditut, baina egon ezina, higuina sortzen didate. Senez gauza dekadente eta makur guztiak baztertzen baititut. Mila aldiz nahiago dut eguzkiaren kolorea duen sorgin belar soila, ni bezala argiarekin zabaltzen da, baina bere baitan lotsati sartzen da itzal arin bat igarotzerakoan.

Zein iluntze eta gau ederrak izaten diren orain! Atzo deskriba ezinezko magiak blaitzen zuen paisaia guztia. Ilunabarretik denbora askora zerua opalo kolorearen distirarekin argiturik zegoen eta zehaztu ezinezko ildoxka koloretsuak zeuzkan, paleta erraldoi bat zirudien zeruak, egunaren bukaeran etengabeko lanaren ondoren, atsedena hartzera joan aurretik margolari batek bere pintzelak garbitu izan balitu bezala.

Airean ekaitza nabarmentzen zen, tentsio ahul batek bularra estutzen zuen. Zuhaixkak izoztuta ziruditen, urretxindorra isilik zegoen, baina txinbo kaskabeltz nekaezina, saltoka ari zen oraindik, adar batetik bestera, bere garrasi zorrotzak botatzen zituen. Denak itxaroten bizi zirela zirudien. Zutik nengoen, leiho ondoan, ni ere itxaroten Jainkoak daki zer! Seietan sartu gaituzte berriro zeldara, zeru eta lurren artean jada ez nuen itxaroteko ezer...

Wronke, 1917ko uztailak 20

Sonia, nire lagun maitea, nik pentsatzen nuen baino denbora gehiago utziko naute espetxe honetan aienatzen, oraindik beste gutun bat gehiago jasoko duzu Wronketik. Nola sinets dezakezu nik ez dizudala gehiago idatziko! Nik zurekiko gordetzen ditudan sentipenak ez dira aldatu, eta ez dira aldatuko. Ez dizut idatzi, banekielako Ebenhausenetik alde egin zenuenetik hamaika kezka izango zenituela; baina gainera, une hartan ez nuelako zuri idazteko umorerik.

Ziur aski jakingo duzu Breslauko espetxera eramango nautela. Gaur goizean, agur esan diot nire lorategi txikiari. Eguraldi grisa eta euritsua ari du, ekaitz mehatxua dago, zeruan laino multzoak dabil-tza, baina ongi aprobetxatu dut ohiko paseoa. Agur esan diot hormaren luzeran dagoen bide zolatu estuari. Ia bederatzi hilabetetan ibilaldi ugari egin ondoren, harritxo txikiena eta zola artean ermetzen diren belar txikienak ezagutzen ditut. Harrietan beren koloreen desberdintasuna suertatzen zait erakargarria: gorri-kak dira, urdinkarak, orlegiak, grisak. Negu luzean nire begiek ezin zuten berde zipriztin bat ere aurkitu, eta

harri hauen koloreetan irrikaz bilatzen nuen alaitasun pixka bat. Orain udara heldu denean, zenbait gauza bitxi, ikusgarri daude harrien artean! Erle basati mor-doak eta liztorrek beren habiak egin dituzte. Harrien artean, galeria sakonen sarbide diren intxaur baten lodierako zulo borobilak aitzurtzen dituzte. Kanpora botatzen duten lurrarekin multzo txiki politak egiten dituzte, beren arrautzak, argizari eta ezti basatia jartzeko. Etengabe sartzen eta irteten dira. Nire ibilaldietan, tentuz ibili behar dut, beren lur azpiko bizilekuak ez zapaltzeko. Inurriek ere joan-etorri geldiezinak egiten dituzte, ilaretan zeharkatzen dute bidea, marra zuzena zehatz-mehatz jarraitzen dute, senez geometriaren legeak balekizkitez bezala eta jakingo balute bezala marra zuzena dela puntu batetik bestera doan biderik laburrena (lehenengo gizakiek inondik ere ez zekiten zerbait). Belarrak ugari hazten dira hormaren luzetara, batzuk zimeldu dira jadanik eta beren malutak zabaltzen dihardute, besteak, geldiezinik, ernatzen jarraitzen dute. Badago ere udaberrietan zehar, bide erdian ala hormaren aurka hazten ikusi ditudan zuhaixken belaunaldi oso bat: akazia txiki bat, ziur aski zuhaitz zahartu baten aletik sortua, maiatzaren ondoren mundura etorritako zurzuri batzuk. Zurzuriak, haize aldietan, beren arbasoek bezala, izugarriko xarmarekin kulunkatzen dituzte hosto zuri-berdeen apaindurak daramatzate jadanik. Zenbat aldiz jarraitu dudan bidea, zuhaitzen artean, zenbat sentipen izan ditudan, zenbat pentsamendu bururatu zaizkidan! Negu gorrian, elurte baten ondoren maiz bidexkak egin ditut. Orduan nire kaskabeltz txiki maiteak laguntzen ninduen, udazkenean ikustea itxaron nuen, baina ez nau gehiago aurkituko nire leihora janari bila etortzen denean, bere ohiko lekura. Martxoan, egun batzuetan,

elurra urtu denean nire bidea errekatxo bihurtzen zen, hotza biziagoa bihurtu ondoren. Gogoan dut haize epelak olatu txikiak sortzen zituela azalera, eta hormako adreiluak islatzen zirela, bizi eta distiratsu. Gero maiatza etorri zen eta hormaren ondoan loratu zen lehenengo bioletak igorri nizkizun.

Gaur, paseatzen nihardunean, gogoetak eta behaketak egiten, Goetheren bertso hauek xuxurla egiten zidaten nire buruan:

*Merlin zaharra bere hilobiaren argipean,
gazte nintzenean han hitz egin nion³⁰,*

Zuk poemaren jarraipena ezagutzen duzu. Noski bertso hauek ez zuten zer ikusirik nire une horretako umorearekin eta kezkekin, baina hitzen doinuan eta poemaren xarma bitxian galtzeko baimena eman nion neure buruari. Ez dakit zergatik, baina poema ederrak, Goetheren hauek batik bat, sakonki hunkitzen naute, nire barruko kezkek gaintitzen nautenean batez ere. Ia erreakzio psikologiko bat da: edari atsegin batek nire egarria asetzen duela iruditzen zait, freskatzen nauela, nire gorputz eta izpituaren osasuna berpizten didatela. *Eki-mendebaldeko Divana*³¹ izeneko liburuan dagoen poema da, eta zuk azkeneko gutunean aipatzen didazuna ez dut ezagutzen. Kopiatzeko eskatuko dizut. Badago beste bat aspaldidanik nahi nukeena eta ez dagoena nik daukadan bilduman. *Blumengruss* poemari buruz ari naiz. Lau edo sei bertsoko poema txiki bat da; Wolfen abesti baten bidez ezagutu dut, aparteko edertasuna du, azkeneko bertsoetan batez ere, gutxi gora behera honela dio:

30 Goethe, *Kophtisches Lied*.

31 Goetheren poema liburu bat.

Nik jaso ditut loreok
nostalgiaren oinaze kartsuarekin.
Nire bihotzaren kontra estutu ditut
gutxienez mila bider.³²

Musika honek sentimendu erlijioso bat adierazten du, leuntasun modu on bat, belaunikatzean egiten den otoitz isil batean bezala. Baina testuaz ez naiz gehiago oroitzen eta berriro aurkitu nahi nuke.

Atzo gauean, bederatziak aldera, ikuskizun eder baten lekuko izan nintzen berriro. Eserita nengoen sofatik leihoko beira argitzen zuen isla arrosa bat nabari nuen. Honek txunditu ninduen zerua erabat grisa baitzegoen. Leihorantz korrika egin eta edertasun haren menpe geratu nintzen. Ekialdean, zeru gris berdinduaren gainean hodei arrosa eder neurrigabea nabarmentzen zen, erabat irreal zen, beste leku ezezagunetatik etorritako irribarre bat, agur bat bezala. Nik askatasunaren moduko zerbait sentitu nuen, nahigabe bi eskuek luzatu nituen agerraldi magikorantz. Ez al da ederra bizitza eta ez al du merezi bizirik egoteak horrelako kolore eta irudiak jasotzeko? Ezin nuen nire begirada askatu ikuskizun argitsu hartatik eta argi izpi gorrixka bakoitza irentsi nuen, bat-batean nire jarreraz barre egin nuen. Jauna! Zerua, hodeiak eta munduko edertasuna ez dira Wronken geratuko, nik ez diet agur esango. Ez, luzaro lagunduko naute noan lekura noala, ni bizi naizen arte.

Laster Breslautik idatziko dizut. Ahal duzunean etorri hara ni ikustera. Goraintziak Karli.

32 Goethe, *Lorezko agurra*: «Bildu dudan sortak / milaka bider agurtuko zaitu. / Sarritan makurtu naiz, / behintzat mila bider, / eta nire bularraren kontra estutu dut, / gutxienez ehun mila bider. Hugo Wolf, *Goethe-Lieder*, 24.

Besarkada mordo bat zuretzat. Agur, nire bederatzigarren presondegira arte.
Zure lagun leiala
Rosa

Breslau, 1917ko abuztuak 2

Nire Sonia maitea, 28an heldu zitzaidan zure gutuna. Lehenengo aldia zen kanpoko berriak nituela, eta imajina dezakezu nolakoa izan den nire poza. Asko arduratzen zara nitaz, nire espetxe aldaketa zorigaizto handi bat bezala bizi duzu... badakizu lasaitasunez hartzen ditudala bizitzako gorabehera guztiak. Ohitu naiz jadanik; gaur, nire liburu kaxak iritsi dira Wronketik. Laster, liburu, marrazki, erreproduzio eta beti nirekin daramatzadan apaingarri xumeei esker, hemen ditudan bi gelaxkak Wronken nuen bizilekua bezain eroso eta kutuna izango da, lanerako gogoak areagotuko zaizkit eta berrindartuko ditut gainera. Noski, hemen falta zaidana Wronken mugitzeko nuen askatasun erlatiboa da, gotorlekua egun guztia zabalik baitzegoen, hemen aldiz giltzapean nago beti. Aire garbia, lorategia eta batez ere txoriak faltan sumatzen ditut. Ezin dezakezu imajinatu nola atxiki naizen nire lagun txiki horiekin. Baina guzti horiek gabe moldatu naiteke. Laster ahaztuko dut zorte hobego bat ezagutu dudala. Hemengo egoera Barnimstrassekoaren antzekoa da, hala ere falta da erizaindegiko patio orlegi polita, egunero botanika

eta zoologia aurkikuntza txikiren bat egiten nuen toki hura. Hemen, nire ibilaldiak egiten ditudan ekonomatoko patio handi zolatuan ez dago «aurkitzeko» ezer. Nire begiek irmoki patioko zola grisa behatzen dute, beren jantzi zarpatsuez lanean diharduten espetxeratuak ez ikusi arren ikuskizun mingarria suertatzen zait. Beren artean badira giza doilortze sakonenaren eraginpean ez adinik, ez sexurik, ezta nortasunik ere ez dutenak, hala ere nire begirada erakartzen dute, lilura mingarria eragiten dute niregan. Egia da ere, edonon, ikus daitezkeela espetxeko jantziak doilortzea lortu ez duten irudiak, pintore baten begia poztuko luketena. Adibidez, langile gazte bat aurkitu dut patioan, gorputz lirain airosoarekin, burua zapi batez estalia, soslai zorrotzak Millet³³ baten antza handia zeukan. Atsegina zen ikustea nolako nobleziaz zeramatzan bere zamak. Bere aurpegi zurbilak, azal tenkatu zurixkarekin, Pierrot tragiko baten maskara gogorazten zuen. Baina gertatu zaizkidan esperientziagatik, itxura erakargarria duten pertsona hauengandik urruntzen naiz. Barnimstrasseko espetxean erregina baten itxura ona eta jarrera zituen espetxeratu bat aurkitu nuen, imajinatu nuen bere izpirituak noblezia berdina zuela. Gero nire atalera etorri zen neskame gisa, bi egun beranduago bere itxura ederraren azpian hainbat jarrera txoro eta zital ikusi nizekion. Berehala, berarekin topo egiterakoan begiak beste alde batera itzultzen nituen. Gizaldietan zehar, Miloko Venusak emakumerik ederraren ospea gorde badu isiltzen delako da. Bere xarma guztia galtzeko arriskuan ipiniko litzateke ahoa irekiko balu.

33 Jean François Millet (1818-1893) margolari frantses errealista eta naturalista. Barbizon eskolako partaidea izan zen, inpresionismoaren aitzindaria.

Nire leihoen aurrean gizonen espetxea dago, ohiko adreilu gorriko eraikuntza makur bat da. Baina nik hormaren gainetik parke batean egon daitezkeen zuhaitz batzuen goialde berdea dakusat: haizea dabilenean dardarka entzuten da lertxun beltz handi bat, eta lizar ilera bat, hostaila askoz argiagoa daukate, leka mordo horiez estalita daude. Leihoak ipar mendebaldera begira daude, nahiz eta gauetan maiz hodei ederrak igarotzen ikusten dituzten. Ba al dakizu nire zorionerako nahikoa dela hodei arrosa bat gainontzeko gauza guztiez kontsolatzeko? Une honetan arratsaldeko zortziak dira (alegia, berez zazpiak dira), Eguzkia duela gutxi ezkutatu da, gizonen presondegi-ko teilatuen atzean, erreinu liluragarriak botatzen ditu oraindik sabaileihoaren beiraren gainean, zeru guztia urre kolorekoa da. Zorionsua naiz eta –ez dakit zergatik– Gounoden³⁴ *Ave Maria* baxu kantatzeko gogoia sentitu dut. (Zuk ezagutzen duzu ezta?)

Mila esker, nigatik kopiatu dituzun Goetheren poemagatik. *Berechtigte Männer* deritzon poema oso ederra da benetan, baina ez nintzen nire kabuz ohartuko; batzuetan beharrezkoa da gauza baten edertasuna sentitu araztea. Eska diezazuket *Anakreons Grab* olerkia kopiatzea? Ondo ezagutzen al duzu poema hori? Nik ez dut benetan ulertu ez balitz Wolferen musikaren bitartez; doinutik arkitektura bat jaiotzen da; Greziar tenplu bat ikusten diharduzula sinetsiko zenuke.³⁵

Berehala –gutuna idazteari utzi diot zerua behatzeko– eguzkia gradu bat jaitsi da eraikuntzen atzetik, goialdean hodei txiki pilo bat –Jaungoikoak daki nondik etorriak– isiltasunean elkartu dira. Gris xamur kolore-

34 Charles Gounod (1818-1893) konpositorearen *Ave Mariak* latinezko otoitz kantua Bachen *Ongi tenperatutako klabearen* lehenengo liburuko lehenengo preludearen musikarekin konbinatzen du.

35 Hugo Wolf, *Goethe-Lieder*, 29. zkia.

koak dira, zilar kolorekoak eta distiratsuak dira ilaran, hausten diren irudiekin iparrerantz zuzentzen dira. Arduragabekeria handia dago igarotzen diren hodei hauetan, irribarre axolagabe bat bezalakoak dira, neuk ere ezin izan dut irribarre ekin, inguratzen nauen bizi erritmoarekin bat nator beti. Horrelako zero baten aurrean nola izan daiteke norbait ankerra edo zitala. Ez ahaztu inoiz zure inguruari begirada bat botatzea, beti aurkituko duzu bihozbera izateko arrazoiren bat.

Karlek txorien kantuei buruzko liburu bat nahi izateak pixka bat arritu nau. Niretzat, txorien ahotsa euren izaerarekin eta bizitzarekin bat dator; osotasuna soilik interesatzen zait, ez atal isolatu bat. Emaiozu animalien geografiari buruzko liburu on bat, horrekin asko ikasiko du. Espero dut aurki etorriko zarela bixitan. Bidaliezadazu telegrama bat baimena izan bezain laster.

Besarkada asko zuretzat.

Zurea,

Rosa

Jaungoikoak barka nazala! Zortzi orrialde bete ditut! Gaurkoagatik ez da deus gertatzen. Mila esker liburuengatik.

1917ko azaro erdialdean

Nire Sonia maitea:

Espero dut laster izango dudala gutun hau bidaltzeko aukera, beraz gogoz hartuko dut luma. Denbora tarte batez egon naiz zurekin harremanik izan gabe, gutunen bidez gutxienez. Ezin izan dizut idatzi, gutunak bidaltzeko ematen zidaten baimen urria Hans D.rentzat³⁶ gorde behar nuelako, bera zain baitzegoen. Orain bukatu da. Nire azkeneko bi gutunak hildako bati zuzenduak zeuden. Jadanik bat itzuli didate. Ezin dut sinetsi. Baina hobe dugu horretaz hitzik ez egitea; nahiago dut neure buruarekin aritu gauza hauei buruz, eta ez dut jasaten norbaitek albiste lazgarri bat jasotzeko prestatzen nauenean eta lantuekin «kontsolatu» nahi nauenean, N.k egin zuen bezala. Honek esan nahi du nire hurbileko lagunek gaizki ezagutzen eta gutxi balioesten nautela! Ez al dute ulertzen honelako egoeretan hobe dela zuzen, samur eta sinpleki esatea: hil egin da... Etsigarria da, baina ez dezagun gehiago hitz egin.

36 Hans Diefenbach (1881-1917) medikua Rosa Luxemburgen lagun onenetako bat izan zen. Frontean hil egin zen.

Tamalgarria da hilabeteak eta urteak era hone-
tan igarotzen ikustea, hainbat ordu atsegin elkarrekin
bizi genitzakeenean, munduan zehar egiten diren
izugarrikeriak gertatu arren. Ikus ezazu Sonia, honek
gehiago irauten duen heinean, neurririk eta mugarik
gabe zitalkeria eta izugarrikeria gehiagoren lekuko
izango gara egunero, baina gero eta lasaiagoa eta sen-
doagoa bihurtzen naiz hala ere. Elementu desberdinak
kontuan hartuta: ekaitz bat, uholde bat ala eguzkia-
ren eklipse bat ezin da moralaren irizpideekin aztertu,
egitate bat bezala hartu behar da, bilaketarako eta eza-
gupenerako gauza bat bezala.

Hauek dira, zalantzarik gabe, historiak posible
dituen bide posible bakarrak, eta historia jarraitu behar
dugu norabide nagusitik despistatu gabe. Irudipena
daukat, trabatzen gaituen zabor moral guztia honek,
bizi garen zoroetxe erraldoi honek, guzti kontrako itxu-
ra har dezakeela, egun batetik bestera, magiazo bastoi
batek eragindako kolpe bati esker, aurkakoa eman
dezakeela: gauza handi eta heroiko batean bihur daite-
keela. Eta gatazkak urte batzuk gehiago irauten badu,
ziur nago esandakoa gertatuko dela... Anatole Fran-
cen³⁷ *Les dieux ont soif* irakur ezazu. Nire iritziz, liburu
honek duen handitasunak idazleak pertsonarekiko
duen ezagupen orokorrarekin du zerikusia. Historiaren
une egokian pertsonaia deitoragarriek, egunerokota-
sunean axola ez duten horiek, gertakizun erraldoiak
eta keinu izugarriak egin ditzaketela kontatzen du.
Gizartearen bilakaeraren aurrean, bizitza pribatuan
dugun jarrera berdina eduki behar dugu: lasai egon,
gauzak bere orokortasunean behatu eta irribarre leun
bat gorde. Irmoki sinesten dut gatazkaren ondoren, ala

37 Anatole France (1844-1924) poeta, kazetari eta asko saldutako nobelen
egilea izan zen. 1921ean literaturako Nobel saria jaso zuen.

liskarraren bukaeran, bide egokia aukeratuko dugula, baina aldez aurretik, gizakiek inoiz ezagutu ez dituzten sufrimendurik makurrenak pairatu beharko dituzte.

Eta hitzak hizpidea dakarrela, nire azken hitzek beste ideia bat piztu didate, poetikoa eta hunkigarria iruditzen zaidan gertaera bat. Orain dela gutxi, zientzia liburu batean txorien migrazioari buruz irakurri dut, fenomenoak misterioak izaten jarraitzen du, normalki etenik gabeko liskarretan ibiltzen diren espezie desberdinak (elkar erasotzen eta irensten duten espezieak), hegoalderantz doan bidaiaria handia elkarrekin eta bakean egiten dute, itsasoa igaroz: samalda erraldoietan Egiptora itzultzen dira negua igarotzera, zerua iluntzerainoko hodei sarriak sortzen dituzte, milioika txori kantari (hegatxabalak, erregetxoak, urretxindorrak) beldurrik gabe, hegan egiten dute txori harraparien artean (mirotzak, arranoak, belatzak, honatzak) ehizatuko dituztenaren beldurrik gabe. Esango genuke, bidaiak irauten duen bitartean, inplizituki, *trêve de Dieu* bat nagusitzen dela. Nilo ertzera heltzean denek helburu berdina dute, beren buruek lurrera botatzen uzten dituzte, indar hustuta, erdi hilik, ondoren espezie bakoitza bere sendikoeekin joaten da. Zerbait hobea goa egiaztatu dute gainera, bidaiaria garaian, neurrigabeko itsasoaren gainetik txori handiek txikiak bizkar gainean hartzen dituzte. Hala, ikusi izan dituzte kurrilo samaldak txori txiki-txikiak eramaten, beren txio alaiak entzunaraziz. Ez al da xarmagarria?

Duela gutxi jakin nuen Hugo von Hoffmannstahl-en³⁸ olerki kaotiko eta interes gutxiko batengatik. Autore hau ez dut atsegin, oro har, bihurria da, mokofina, iluna, funtsean ez dut ulertzen. Baina olerki hori asko gustatu zitzaidan eta inpresio poetiko indartsu

38 Vor Tag.

bat eragin zidan. Erantsita bidaltzen dizut, agian zuri ere gustatuko zaizu.

Orain geologia asko ikasten ari naiz. Zientzia lehor bat irudituko zaizu zuri, baina hori akatsa da. Nik interes sukarti batekin irakurtzen dut eta satisfazio apasionatu batekin; geologiak modu kolosalean zabal-tzen du espirituaren zerumuga eta naturaren inguruko batasun ikuspegi bat eskaintzen du beste edozein zientziak baino gehiago. Horri buruzko gauza asko kontatu nahiko nizkizuke, baina horretarako hitz egin beharko genuke, Südendeko zelaietan paseatuz arrats batean ala etxerako bidean ilargi beteko gau batean. Zer irakurtzen ari zara zu? Zer gertatu da *Die Lessing-Legende*-rekin?³⁹ Zuri gertatzen zaizun guztia jakin nahi dut! Ahal baduzu, idatzidazu berehala bide beretik, ala bide ofizialetik gutun hau aipatu gabe. Isiltasunean zu berriro hemen ikusteko falta zaizkidan asteak zenbatzen ditut. Urte berria eta pixka bat beranduago izango da, ezta?

Zer ari da Karl idazten? Noiz ikusiko duzu berriro? Agurtu mila bider nire partez. Indarrez estutzen dut zure eskua eta besarkatzen zaitut Sonia maitea. Idatzidazu laster eta asko.

Zurea,
Rosa

39 Frantz Mehring, *Die Lessing-Legende: Zur Geschichte und Kritik des preussischen Despotismus und der klassischen Literatur*, 1892.

Breslau, 1917ko azaroak 24

...Uste baduzu aurreiritziak ditudala poeta modernoekiko oker zaude. Duela hamabost bat urte inguru Dehmelek hitz lauz idatzitako lan bat gogoz irakurri nuen. Maite zuen emakume baten heriotzaz ziharduen. Ez dut oroimen zehatzagorik, baina miresgarria aurkitu nuen poema hori.⁴⁰ Oraindik buruz dakit d'Arno Holzeren *Phantasmus*. Era berean, Johann Schläferen *Frühlinge*k gogobete ninduen. Gero alde batera utzi eta Goethe eta Möricke itzuli naiz berriro. Nik ez dut Hofmannsthal ulertzen; ez dut Stefan George ezagutzen, egia da, beraietaz pixka bat mesfidatzen naizela, formari ematen dioten nagusitasunarengatik, beren adierazpenetako baliabide poetikoengatik ere. Munduari buruz duten ikuspegiari handitasuna eta noblezasuna falta zaiela iruditzen zait. Gabezia hauek ez dute oihartzunik nire izpirituan eta edertasun formalegi hori karikatura bat bihurtzen da. Orokorrean modu miresgarrian erakusten dituzte gogo aldarteak, baina gogo aldarteak ez dira aski pertsona bat sortzeko.

40 Richard Dehmel (1863-1920), agian *Die drei Schwestern* ipuinari buruz ari da, ala *Beschwörung* poemari buruz.

Sonia, orain arratsalde zoragarriak ditugu; uda-berrian gaudela esango genuke. Laurak aldera, patiora jaisten naiz, gaua dator, nire bizitzaren itxura ezatsegina iluntasunaren estalki misteriotsuan lausotzen dakusat; zerua aldiz, urdin argi dago eta bizi-bizi agertzen da ilargi zilartu eta argi bat da teilatu gainean. Egunero, ordu honetan ehunka bele-mika patioaren gainetik igarotzen dira, hegaldi sakabanatuetan, landara doaz berriro gauerako aterpea emango dien zuhaitzen bila. Astiro astintzen dituzte beren hegoak dei bitxiak elkar trukatzuz. Egunez, beren ehizakia harrapatzerakoan, botatzen dituzten «kra-kra» zorrotzetatik erabat desberdinak dira. Orain oihu leundua besterik ez da, estutua, eztarriko doinu sakona, metalezko bala batek lez kolpatzen nauena. Bele-mikek «kau-kau» egiten dute bata bestearen ondoren igortzen, jolasten ari direla dirudi, airean bihurtune bat marraturik balak elkarri botaaz. Pentsa daiteke egunean zehar geratutakoaz dihardutela, beren erara. Bele-mika hauek oso serioak eta garrantzitsuak iruditzen zaizkit arratsero beren ohiko bide markatua egiten dutenean; begirune handia diet hegazti handi hauei, burua luzatuz begiratzen ditut, amaierara arte. Ondoren, batera edo bestera noa iluntasunean, espetxeratuak lanpetuta ikusten ditut oraindik patioan, itzal zalantzatiak bezala lerraturik. Nire amets-irudiekin bakarrik ikusezin geratu naizelako pozik sentitzen naiz, igarotzen diren bele-mikekin ezkutuko agurrak trukatzuz ditut, hain da atsegina udaberriko airearen leuntasuna. Gero, espetxeratuak eltzekada astunekin (gaueko soparekin) zamatuta patioa igarotzen dute eta eraikuntzan sartzen dira, binaka, pausoka, hamar bikote bata bestearen atzetik; ni naiz ibilaldia ixten duena. Argiak emeki-emeki itzaltzen dira patioan eta

ekonomatoaren eraikuntzan. Sartzen naiz, atea sarrairekin ixten dira buelta bikoitza emanaz; eguna amaitu da. Hansen heriotzak sortzen didan mina izan arren ongizate sentipen bat dut. Egia esan, bera hilik ez dagoen ametsezko mundu batean bizi naiz. Bera presente daukat beti, maiz berari buruz pentsatzen dudanean irribarre egiten diot.

Sonia, osasuntsu izan zaitezela nahi dut. Asko pozten nau zu berriro ikusteak. Arin idatzi, besterik ezean bide ofizialetik, aukera hobego baten zain.

Besarkatzen zaitut.

Zure

Rosa

Breslau, 1917ko abenduaren erdialdean

Bada urte bat Karl espetxeratu zutela, Luckaun. Hortaz maiz pentsatu dut eta hil honetan ere urte bete pasa da ni ikustera etorri zinela Wronkera eta Gaboneta-ko zuhaitz eder bat ekarri zenidala... Aurten hemen bat lortu dut, itxura guztiz txarra du, adarrak falta zaizkio gainera, inongo konparaziorik ez joan zen urtekoarekin! Ez dakit nola egingo dudan erosi ditudan zortzi bonbilla txikiak zintzilikatzeko. Hirugarren urtea da Gabonak giltzapean igarotzen ditudala, baina ez ezazu hartu hori zorigaitz bat bezala. Lasai nago, beti bezala. Atzo, luzaro esna geratu nintzen –ezin izan nuen lo hartu goizeko ordu bata baino lehen, baina hamarretarako oheratu behar izaten dut-. Orduan, iluntasunean, nire buruari mota guztietako irudikerietan sartzen uzten diot. Atzo, neure buruarekin mintzatuz zera nioen: ez al da bitxikeria bat alaitasunean murgildurik egotea beti, arrazoi bakar bat izan gabe. Adibidez, lastaira gogor-gogor batean nago etzanda, zelda ilun batean, nire inguruan betiko hilobiko isiltasuna dago, hilobi batean banengo bezala da. Presondegi aurrean gau guztia erretzen diharduen lanpararen islak leihotik sartu eta

sabaian dantzaten du. Une batetik bestera, urrunean tren baten burrunba lausoa entzuten da eta leiho-pean, oso hurbil, zaindariaren ez tul txikia, zangoak luzatzeko bere bota astunekin dabilela. Bere boten azpian, etsita kurrinkatzen da area, gau beltz hezean irtenbiderik gabeko bizitza baten atsekabea gogorarazten duela dirudi. Hemen nago etzanda, bakarrik, ilun, negu aspergarriaren menpe, hala ere pentsaezinezko poz berezi batek astintzen du nire bihotza, eguzki distiratsua ren pean, zelai loratu batean banenbil bezala. Eta ilunpean bizitzari irribarre egiten diot, hondamendia eta goibeltasuna argitasun eta zorion bihurtzeko sekretu miragarria ezagutuko banu bezala. Beraz poz honen arrazoi en bila nabil, ez ditut aurkitu eta ezin dut saihestu nire buruaz barre egitea. Nik uste bizitza bera dela sekretu bakarra, gauaren iluntasun sakona belusa bezain ederra eta leuna dela ongi begiratuta. Eta zaindariaren pauso geldiaren eta astunaren pean sableak kurrinkatzen duenean ere bizitzak kantatzen du, entzuten jakinez gero. Une horietan, zuga n pentsatzen dut, asko gustatuko litzaidake, egoera edozein delarik, edertasunera eta zorionera sarbide den giltza magiko hau zuri igortzea, une xarmagarri batean bizitzen utziko lizukeena, kolore aberatsezko zelaian ibiliko bazina bezala. Nik ez dizut aszetismorik aholkatu nahi. Nik poz ukigarri egiazkoak opa dizkizut, baina nik soilik, nire zorion agorrezina adierazi nahi nizun. Horrela zutaz ez nintzateke gehiago kezkatuko eta zuk izarrez apaindutako mantuaren pean bizitza igaroko zenuke, zikoizkeria, hutsalkeria eta larritasun guztien aurka babestuta.

Steglitzeko parkean baia more eta beltzen sorta eder bat bildu zenuen. Baia beltzak intsusak izango ziren -fruituak mordo astun eta trinkoetan zintzilikatuta

egoten dira, hosto luma irudi handien artean, seguru nago ezagutzen duzula– bestela deabru-zur lorea izan daiteke: baia mordo bertikalak dauzka, finak eta ederrak, eta hosto berdeekin, estuak eta luzexkoak. Hosto txikien artean ezkutatzen diren baia moreak mizpirondo nanoak izan daitezke; egia da gorriak direla, baina urtaroa aurrera doan heinean, erabat heldu eta usteltzen hasten direnean, maiz kolore gorri morexka hartzen dute. Hostoak mirtoaren antzekoak dira: txikiak, zorrotzak, berde ilunak eta, atzealdea, larruaren ehundurakoa dute, azpiko aldea aldiz zimurtsua.

Sonia, Platenen *Die verhängnisvolle Gabel*⁴¹ ezagutzen al duzu? Ekarri edo bidaliko al zenidake? Karlek behin esan zuen liburu hori etxean irakurri zuela. Georgeren poemak oso ederrak dira. Orain badakit nondik datorren bertso hori, landan paseoan genbiltzanean zuk batzuetan errezitatzen zenuena «Und unterm rauschen rötlichen getriedes!». Egoera aprobetxatuz, Amadis berria kopiatuko al zenuke? Hainbeste maitate dut poema hori, Wolfen, melodiari esker ezagutu nuen, baina ez dut hemen, noski! *Lessingen legenda* irakurtzen jarraitzen duzu? Langeren *Materialismoaren historia* irakurtzen ari naiz berriz ere, beti suspertzen eta freskatzen nau. Zuk irakurriko bazenu asko poztuko nintzateke.

Ai! Sonia! Min anker bat egiaztatu dut nik hemen. Ibilaldiak egiten ditudan patioan armadako kotxeak sartzen dira maiz. Zakuak, jaka zaharrak eta soldaduen alkandorak, odolarekin zikinduak maiz, pilatzen dituzte. Hemen uzten dituzte gauza horiek guztiak, eta zeldetan banatzen dituzte, josten dituzte, eta gero berriz ere biltzen dituzte armadari entregatzeko. Duela gutxi karro horietako bat etorri zen baina

41 August von Platen (1796-1835), *Die verhängnisvolle Gabel*, 1826.

ez zuten zaldiek tiratzen, baizik eta bisonteek. Animalio-
liok gertutik ikusi nituen lehenengo aldia zen. Geure
idiak baino zabalagoak eta sendoagoak dira, buru leu-
nak dauzkate eta adar bihurriak, kaskezurra gure
ardienaren antzekoa dute, beltza eta begi handi atse-
ginekin. Errumaniatik datoz gerra garaikur gisa. Gurdia
gidatzen duten soldaduek animalia basati hauek har-
rapatzea izan zela kontatu dute, eta lanerako animalia
gisa erabiltzea are zailagoa dela, askatasunera ohituta
daudelako. Izugarritzko makilakadak ematen dizkiete;
Vae victis esaera aplikatzen ahal zaie. Breslaun soilik
ehun bat bisonte daude; Errumaniako larre jorietara
ohituta daude, baina hemen oso gaizki elikatzen di-
tuzte. Erruki gabe zapaltzen dituzte edonolako gurdiak
bultzatzen eta segituan hiltzen dira. Bada duela egun
batzuk zakuak zeramatzan gurdi bat iritsi zen, hain-
beste zama zekarren bisonteek ezin zutela ate nagusia
igaro. Haiekin zihoan soldadua tipo basati bat zen, ani-
maliak kolpatzen hasi zen zartailu batekin zaindariatik
suminduta galdetu zion arte ez al zuen animaliekiko
gupidarik. «Gurekin inork ez du gupidarik, eta pertso-
nak gara», esan zion soldaduak irriño maltzur batekin,
eta indar handiagoz kolpatzen hasi zen. Azkenean,
animaliek sartzea lortu zuten, baina bat odoletan ze-
goen... Sonia, bisontearen azala bere lodierarengatik
eta gogortasunarengatik da ezaguna, baina animalia
honena erabat urratuta zegoen. Bisonteak akituta zeu-
den, eta odoletan zegoenak aurpegi beltza zuen eta
bere begi beltz eta lasaietan negar egiten duen haur
baten keinu bera zuen. Zergatik gogor zigortu duten
ez dakien haur baten keinu bera zuen, oinazetik eta
bortizkeria basatitiki alde egiten ez dakien haur batena.
Bere aurrean nengoen eta bisonteak begiratzen zidan:
negar egiten hasi nintzen. Bereak ziren malkoak, ezin

da gehien maite duzun nebarengatik minez gehiago negar egin nik sufrimendu isil horren aurreko inpotentziarengatik negar egin nuena baino. Ze urrun, ze iritsezinak eta galduak dauden Errumaniako larre libreak, goxoak eta berdeak! Ze ezberdin egiten duen han distira eguzkiak! Ze ezberdin egiten duen putz han haizeak! Ze desberdinak ziren txorien soinu ederrak eta artzainen dei melodikoak! Eta hemen: hiri estrainio eta zatar bat, estalpe zikin bat, belar ondu nazkagarria lasto ustelarekin nahastua, pertsona ezezagun eta kрудelak, kolpeak, zauri freskotik ateratzen den odola... O, bisonte gaixoa, nire neba maitea, biok gaude hemen, indargabe eta geldo, minean batuta, nostalgian! Bitartean, presoek gurdiaren inguruan lan egiten dute, zaku astunak jaisten dituzte eta etxe barrura narrasten dituzte. Soldaduak eskuak poltsikoetan sartu zituen, patioan paseatu zuen pausu handiekin, irribarre egin zuen eta txistuka abestitxoak jo zituen. Eta gerra izugarri hori nire aurretik pasa zen...

Idatzi goiz. Sonia, besarkatzen zaitut.

Zurea,

Rosa

Sonia Maitea, gertatzen dena gertatzen dela, egon zaitez lasai eta alai. Horrelakoa da bizitza eta kuraiaz hartu behar dugu, beldurrik gabe eta irribarre eginez.

Breslau, 1918ko urtarrilak 14

Sonia, nire adiskide maite-maitea, zenbat denbora ez dizudala idatzi? Nik uste hilabeteak pasa direla. Ez dakit oraindik Berlinen zauden ere, baina gutun hau zure urtebetetzerako heltzea nahi nuke. Mathilderi eskatu nion zuri orkidea sorta bat igortzea eta begira! Gaixoa ospitalean dago: guztiz zaila egingo litzaioke nik eskatutako enkargua egitea. Hala ere, badakizu pentsamenduz eta bihotzez zurekin nagoela, zure urtebetetze egunean lorez inguratzea atsegingo litzaidake: orkideak, amiñi-liliak, iris zuriak, usain sakondun hiazintoak, aurkitu ahal daitezkeen lore guztiak. Azken finean, agian datorren urtean neuk izan dezaket zuri loreak eskaintzeko poza, zure urtebetetze egunean elkarrekin lorategi botanikora ibiltzera joan gaitzake, ala landara.⁴² Hori egundokoa izango litzake! Gaur zero gradu egiten ditu, baina badago airean udaberriko irribarre ezti eta freskagarria, esne-itxurako laino zuri itxi artean zeru urdin sakonak distira egiten

42 Rosa Luxemburgek ezin izan zuen desio hau bete. Karl Liebknechtekin batera hil zuten 1919ko urtarrilaren 15ean, hain justu Sophie Lieknechten urtebetetzea baino hiru egun lehenago.

du eta txolarreak txio egiten ari dira alaiki; martxoaren azkenean gaudela irudi luke. Udaberriaz pozten naiz jadanik, bizirik gauden bitartean, inoiz nekatzen ez gaituen gauza bakarra da; alderantziz, urtero biziki estimatzen eta maitatzen ikasten dugu. Ba al dakizu, Sonia, izaki bizidunentzat udaberria, alegia bizitzaren erretzea, urtarrilaren hasieran hasten dela? Egutegia kontuan hartu gabe. Egutegiaren arabera negua hasten denean eguzkiaren punturik hurbilenean aurkitzen gara. Honek eragin misteriotsua du bizidun guztiengan, landareak eta animaliak iratzartzen dira, urtarrilaren hasieran, magiazko kotoi-zotz kolpe batek eraginda bezala, oraindik elurrek gure Ipar Hemisferioa estalita daukatenean. Ernamuinak erretzen hasten dira, baita animalia asko ugaltzen ere. Berriki Francéren⁴³ liburuan irakurri dut zientzian eta literaturan, lanik bikainenak urtarrilean eta otsailean ekoizten dituztela pertsona ezagunek. Sinetsi behar da ere neguko solstizioa une larri bat dela pertsonen bizitzan eta bizi-indarren bultzada berri bat eragiten duela. Zu ere, Sonia, lore goiztiar bat zara, negu eta izotz artean hazia, arrazoi honengatik pitin bat hauskorra geratu zara bizitza guztirako, berotegiko landare bat lez zaindu behar dena.

Askok gustatu zait Gabonetarako igorri didazun Rodin⁴⁴, berehala eskertuko nizuke Mathildek esan izan ez balit Frankfurtera joana zinela. Rodinen, gehien hunkitzen nauena naturarekiko duen sena da, landan hasten den belar txikienganako erakusten duen errespetua. Gizon aparta izango zen, irekia, naturala, adimen eta berotasuna erakusten zuena. Jaures⁴⁵, asko

43 Raoul Heinrich Francé (1874-1943) Austriako botaniko bat izan zen.

44 August Rodin, *Die Kathedralen Frankreichs*, itzulp.: Max Brod, Kurt Wolff: 1917 Leipzig.

45 Jean Jaurès (1859-1914) Frantziako politikoa sozialista izan zen,

gogorarazten dit. Broodcoorens⁴⁶ atsegin al duzu? Jadanik, ezagutzen al zenuen? Eleberri honek asko hunkitu nau; batez ere, indar poetiko handia duen paisaiari buruzko deskribapenak. Garbi dago Broodcoorensen, De Costerentzat⁴⁷ bezala uste duela «Flandriako lurren gainean» eguzkia planetako beste edozein tokitan baino modu ederragoan ateratzen dela. Nik uste dut flandriarrak beren aberri txikiak maitemindurik daukela, edertasun liluragarria duen neska ezkongai bat bezala erakusten baitigute eta ez paisaia bat bezala. Liburuaren bukaera tragikoak, *Ulenspiegelen* koadro bikain koloretsua dirudi, batez ere etxe komunalaren suntsiketa deskribatzen duenean. Ez al zaizu iruditzen ere liburu hauek Rembrandten koadroak gogorarazten dituztela, beren koadro guztietan gailentzen den itzalagatik. Urre zahar tonuen distirak nabarmentzen dira, xehetasun guztien errealismo harrigarria eta une berean, irudimen izugarriak osotasuna nola biziartzten duen ikusten da.

Berliner Tageblatten irakurri dut, Friedrich-Museumean, Tizianoren koadro berri bat ikus daitekeela.⁴⁸ Joan al zara jada? Onartzen dut Tiziano pintorea ez dela nire gustukoena: erabat itxuratia, oso hotza, trebeegia dela aurkitzen dut. Barkatu! Krimen arbuiagarri bat egi-ten badut, baina nik beti lehenengo zirrara jarraitzen dut. Hala ere gustatuko litzaidake Friedrich-Museu-

erreformista eta ez iraultzailea, nahiz eta gerora komunistena izango zen *Humanité* egunkaria sortu zuen. Bakezalea zen eta horretxegatik asasinatu zuten.

46 Pierre Broodcoorens (1885-1924) Bruselako idazlea izan zen frantsesez, nederlandez eta alemanez. Poemak, eleberriak eta antzezlanak idatzi zituen.

47 Charles de Coster (1827-1879) idazle belgikar frankofonoa izan zen, masoia zen.

48 *Venus organo-jotzailearekin* koadroa da, Wilhelm von Bodek 1917an eman zuen.

mera joan ahal izatea bezero berria agurtzera. Ikusi al duzu Kaufmannen ondarea, hainbeste kalapita sortu duena?⁴⁹

Une honetan, nahiko antzinakoak diren Shakespeareari buruzko ikerketak irakurtzen dihardut. 1860-1870 urtekoak dira, hau da Alemanian Shakespeareari buruzko eztabaida sutsuak zeuden garaikoa. Erret Liburutegiko ala Reichstagetik liburu hauek aterako al zenizkidake?: *Kleinen Geschichte des italienischen Dramas*; *Shacken Geschichte der dramatischen Literatur in Spanien*; Gervinus eta Ulriciren Shakespearearen lanak. Laster idatz egidazu! Eskua heldu eta maitekiro berrakatzan zaitut! Hala eta guztiz konfiantza izan.

Agur, nire Sonia maitea. Laster arte!

Noiz etorriko zara?

Sonia mesede bat eskatzerik ba al dut? Mathilderi bidali hiazintoak nire izenean. Etortzen zarenean ordainduko dizut.

Zure,

Rosa

49 Richard von Kaufmann (1849-1908) ekonomia katedraduna zen eta artea bildumatzan zuen.

Breslau, 1918ko martxoak 24

Sonia maitea. Luzaro da ez dizudala idatzi, baina zutaz asko pentsatu dut azkeneko denboraldi honetan. Egia esan gertatzen ari denak idazteko gogo guztia kentzen dit batzuetan... Ze poza elkartzea ahal izango bagenu, landara joatea norabiderik gabe ibiltzera, gai desberdinez mintzatzea! Baina momentuz ez da posible! Atzera bota dute nire eskaera, gaiztoa eta zuzendu ezina naizela adierazten dute txosten batean, xehetasun guztiekin eta arrazoi berberetatik ukatzen didate ere egun batzuetan irteteko baimena. Beraz, mundu osoa garaitu arte itxoin beharko genuke.

Sonia, denboraldi bat zure berri jakin gabe egoten naizenean bakarrik ikusten zaitut, urduri, goibel, etsita, haizearen nahierara utzia, zuhaitzetik eroritako hosto bat bezala, eta sentipen hori guztiz tamalgarria zait. Begira! Udaberria dator, egunak luzatzen dira eta argitasuna irabazten ari da. Jada landan hainbat gauza daude ikusteko, hainbat zurrumuru entzuteko! Atera zaituz ahal duzun maiztasun handienarekin; urtaro honetan zerua era askotakoa dago, interesgarria da, bultza egiten du eta elkar harrapatzen dabilta hodeiak; kareharrizko lurrazala, biluzik dago oraindik,

ederra egongo da argi aldakorrarekin. Asebete itzazu zure begiak ikuskizun horiekin, nigatik egin ezazu... Hori da bizitzan nekatzen ez zaituen gauza bakarra, betirako freskotasuna gordetzen duena baita beti leial izango zaizuna. Lorategi botanikora joan behar duzu ere bertan dagoen xehetasun baten berri eman diezadazun. Udaberri honetan oso gauza bitxia gertatu da. Txoriak ohiz baino hilabete eta erdi lehenago etorri dira. Martxoaren 10erako, urretxindorra heldu da jadanik; normalki apirilaren bukaeran datorren lepatxuliak 15erako erakutsi zigun bere irribarre hotsa; durdula, «Mendekosteko txoria» bezala ezagutzen dena, maizta baino lehen ez da inoiz iristen, ba bada aste bat txistuka dabilela eguzkia irten baino lehen zerua gris bihurtzen denean. Nik txori guzti horiek kantatzen entzuten ditut, urrutian, eroen babes-etxeko parkean. Ezin dut beren itzulera aurreratua ulertu eta jakin nahi nuke lehen gertatzen zen ala babes-etxearen eragina izan den. Beraz, zoaz lorategi botanikora, Sonia, egun eguzkitsu batean, goizez ahal bada, gertatzen den guztia behatu eta gero niri kontatu. Hau da, Cambraiko borrokaren emaitzarekin batera, lur honetako gertaera garrantzitsuena niretzat, gehien axola zaizkidana.

Erreproduzio bikainak igorri dizkidazu! Soberan dago Rembrandt aipatzea. Tizianorenean hunkituago sentitu naiz zaldiarengatik zaldunarengatik baino; ez nuen inoiz uste izango animalia bati hainbesteko ahalmena eta noblezia ere eman dakiokenik. Baina ez dago ezer ederragorik Bartolomeo Venetoren emakumearen erretratua baino, ez nuen margolaria ezagutzen. Ze kolore liluragarriak! Ze trazu finak! Zein xarma misteriotsua bere adierazpenean! Nik ez dakit oso ondo zergatik, baina erretratu honek Mona Lisa gogoraz-

ten dit. Erreproduzio hauek nire ziega argitzen dute, alaitasun sakona zor dizut.

Ongi da zuk Hans [Diefenbach]en liburua gordetzea, benetan sentitzen dut bere liburu guztiak ez direla gure eskuetan geratu. Zuri emango nizuke lehentasuna. Gutxienez, garaiz jaso al duzu Shakespearea? Zer dio Karlek bere gutunetan? Noiz ikusiko duzu berriro? Eman nire adiskidetasun beroena mila bider eta esaiozu nire partez «ça ira, halere». Konfiantza izan, udaberria profitatu; hurrengo elkarrekin igaroko dugu. Lagun maitea, besarkada bat. Mendekoste zoriontsua! Nire goraintzi beroenak haurrentzat!

Zure,
Rosa

Breslau, 1918ko maiatzak 2

...Atsegin handiz, *Candide* eta Ulfeldt kondesa⁵⁰ irakurri ditut. *Candiden* argitalpena hain da ederra liburua ez moztea eta horrela irakurtzea erabaki dudala. Kaier erdi gisa dago koadernatuta, ez zait ezerosoa iruditu. Ziur asko, gerraren aurretik, pertsonen lazeria eta maltzurkeria guztien zerrenda beltz hau karikatura bat irudituko zitzaidan: orain erabat errealista iruditzen zait... Azkenik ikasi dut nondik datorren adierazpen hau: «*mais il faut culter notre jardin*», nik neuk ere bazuetan erabili dudana. Ulfeldt kondesak agiri historiko baten balioa du eta Grimmshausenen⁵¹ lana osatzen du... Zer egiten duzu? Profitatzen al duzu udaberri miresgarri hau gutxienez?

Beti zurea,
Rosa

50 *Candide*, Voltairen nobela da. Leonora Christina Uldeldt (1621-1689) Danimarkako kondesak bere autobiografia idatzi zuen kartzelan.

51 Hans Jakob Christoph von Grimmshausen (1621-1676) idazle alemanak *Der abenteuerliche Simplicissimus* nobela idatzi zuen.

Breslau, 1918ko maiatzak 12

Sonia:

Zure gutunak hainbeste poztu nau segidan erantzuten ari naizela. Ikusten al duzu ze gozamenaden eta zenbat indarberritzen duen Lorategi botanikora joateak! Zergatik ez duzu gehiagotan profitatzen? Eta zure gozamenaren partaide egin nazakezu, batez ere, zure zirrarak hain bizi eta koloretsu deskribatzen dizkidazunean. Bai, ezagutzen ditut loretan dauden pinuaren gerba miresgarriak, errubiaren gorria dutenak. Halako edertasunekoak dira, loraketa betean dauden landare gehienak lez, ozta-ozta sinesten duzu begiek dakusatena. Gerba gorri horiek lore emeak dira, haietatik pinaburu handiak jaioko dira, beren punta lurrerantz iraultzen da, astunak direlako. Alboan gerba arrak daude, gutxi nabarmentzen dira, urre koloreko polena hedatzen dute gerba laruek. Ez dut ezagutzen akazia mota bat bezala deskribatzen duzun *pettoria*. Zer esan nahi duzu, hosto pinatuak eta lore papilionazeoak dituela «akazia» deitzen dugun zuhaitzak bezala? Jakingo duzu arrunki horrela deitzen dugun zuhaitza ez dela akazia bat, baizik eta *robinia* bat. Mi-

mosa adibidez, benetako akazia bat da; sufre tonuko horia dute beren loreek eta airea usaineztatzen dute, baina ez dut pentsatzen mimosa Berlingo gune irekietan hazi daitekeenik, leku beroetako landarea baita. Korsikan Ajaccioko enparantzan abenduan loratzen ziren mimosak ikusi izan ditut, neurrigabekoak ziren... Zoritxarrez, hemen zuhaitzen hostotzak urrutitik bakarrik ikus ditzaket, nire leihotik, eta beren gainaldea hauteman dezaket hormaren gainetik. Beren forma eta koloreagatik zein motatakoak diren asmatzen saiatzen naiz, eta uste dut oro har, ez naizela asko erratzen. Joan zen egunean norbaitek hautsitako adar bat ekarri zuen, bere irudi bitxiak guztiok harritu gintuen. Beren jatorriaz galdetu genuen. Zumar baten adarra zen. Gogora zaitez Sündendeko kalean nola erakutsi nizkizun fruitu txiki, arrosa hits, arinki berdexkez estalitako zumarrak, maiatza zen ere. Liluratuta egon zinen ikuskizun harrigarri horrekin. Hemen, jendeak dozenaka urte daramatza zumarrez landatutako kale batean, inoiz ez dituzte zuhaitz hauek loretan behatu... Eta ez dira interesatzen animalien onuraz. Azken finean, hiritar gehienak benetako barbaroak dira...

Aitzitik, nik, sakonean, lotura ia erikor bat daukat natura organikoarekin, nahiz eta gizatiarra naizen, ziurrenik nire nerbioen egoerak nolabaiteko lotura izango du. Leiho azpian kutturlio bikote batek kumea izan berria du –ez dago zalantzarik beste hirurak hilda daudela– txori txikiak korrika egiten daki jadanik. Agian ohartuko zinen kutturlioak barregarriak direla korrika egiten dutenean, pauso txiki azkarrez, bi hanken gainean jauzi egiten dute, txolarreek bezala. Txikiak hegan hasten dira ere, baina ez dute oraindik beren kabuz nahikoa janari aurkitzen (intsektu eta beldar txikiak), batez ere garai hain hotzetan. Hori dela

eta, gauero patiora etortzen da, nire leiho azpira, oihi kexati zorrotzak botatzen ditu. Gurasoak agertzen dira berehala, ahopeka «ui-ui» kezkatu batekin erantzuten die. Gero, alde guztietara korrika egiten dute, elikagaien bila, desesperaturik, ilunabar hotzean. Zerbait aurkitzen dutenean garrasika, goseti dagoen txikiarengana doaz berriro eta mokokoa ematen diote. Orain egoera hau gauero errepikatzen da, zortzi eta erdiak aldera. Nire leiho azpian garrasi zorrotz kezkatuak entzun eta gurasoen larritasuna, kezka dakusadanean, benetako atsekabea sentitzen dut. Ezin diet lagundu, kutturlioak oso beldurtiak baitira eta ogia botatzen zaienean ihes egiten dute, usoak eta txolarreak ostera, txakurrek lez jarraitzen naute jadanik. Onez esaten diot nire buruari irrigarria dela, ez naizela munduan zehar dabiltzan kutturlio guztien arduraduna eta ezin dudala negar egin jipoituak diren bufaloen zoriarengatik, egunero patiora beren zamarekin etortzen direnekin bezala. Horrek ez nau ezertan laguntzen eta benetan gaixotzen naiz gertaera horien lekuko naizenean. Arabar-zozoa isilik geratzen bada egun batzuetan ezin dut atsedunik aurkitu, zerbait gertatuko zitzaionaren beldurrez. Eta nire larritasunak dirau berak bere funtsik gabeko berriketa hasten duen arte. Era honela nire ziegatik, hari ikusezin batzuen bidez nago konektatuta samintzen nauten milaka izaki handi eta txikiekin, gerta dakiokeen guztia neure buruari leporatzen diodalarik... Zu ere txori eta izaki horien atal bat zara, nire sentiberatasuna ere hunkitzen duzu, urrutitik bada ere. Badakit zenbat pairatzen duzun ikusirik nola igarotzen diren urteak gupidarik gabe, «bizi» ezinik igarotzen da bizitza erremediorik gabe. Izan jasankorra eta eutsi kemenari. Biziko gara eta berebiziko gertaerak sortuko direla ikusiko dugu. Momentuz, mundu zaharraren eraisketaren

lekuko gara, egunetik egunera pusketa bat erortzen da, eraiste berri bat, lur-jotze bat... Harrigarriena da jende gehiena ez dela ohartzen eta uste duela lurzoru irmoaren gainean dabilela...

Sonia, ba al duzu edo lortu ahal zenidake *Gil Blas* eta *Le diable boîteux*?⁵² Ez dut Lesage batere ezagutzen eta aspaldidanik irakurtzeko asmoa dut. Zuk irakurri al duzu? Besterik ezean, Reclam edizioan erosiko ditut liburu horiek. Bihotzez besarkatzen zaitut.

Zure,

Rosa

Laster idatzi iezadazu Karlen berri emanez.

Agian, Pfmfertek, Stijn Streuvelsen *De vlaschaard*⁵³ liburua izango du, beste flandestar bat hau ere. Liburua Inselek argitaratu du. Bikaina dela diote.

52 Alain-René Lesage (1668-1748) nobelagile eta antzezle frantsesak argitaratu zuen *L'histoire de Gil Blas de Santillane*, 1715-1735. Luis Vélez de Guevararen *El diablo cojuelo* (1641) eleberri bihurtu zuen Lesagek, frantsesez, 1707an: *Le diable boîteux*.

53 Striijn Streuvels (1871-1969) idazle, antzezle eta itzultzaile flandestarra izan zen. *De vlaschaard* [Linozko zelaia] 1907an argitaratu zuen.

Breslau, 1918ko urriak 18

Sonia, nire lagun maite-maitea, herenegun idatzi nizun. Beti bezala ez dut gobernuaren presidenteari zuzendutako telegramaren berririk.⁵⁴ Horrek, oraindik egun batzuk gehiago eska ditzake. Dena den, gauza bat ziurtatu dezaket: nire gogo-aldartearekin ezin ditut nire lagunak zaindari baten aurrean hartu. Urteetan zehar, guztia jasan dut pazientzia handiarekin eta horrela jarraituko nuke urte gehiagotan baldintzak aldatu ez balira. Baina, egoeraren aldaketaren aurrean, sentipen zirraragarrien mende nago. Guztiz neketsuak bihurtu zaizkit zaintzapeko hizketaldiak, ezin dudalako niri benetan axola zaidanari buruz hitz egin, beraz nahiago dut bisita guztiei uko egin berriro erabateko askatasunean elkar ikusi arte.

54 Max von Baden printzeak zuzentzen zuen Alemaniako gobernuak 1918ko urriaren 3tik eta diplomaziaren bidez gerra bukatzea egokitzen zitzaion, parlamentuari boterea eman behar zion berriz ere. Bere gobernuan sozialdemokratak zeuden lehenengoz. 12an amnistia dekretu bat ezarri zuten. Rosa Luxemburg azaroak 8an ateratzen zen kartzelatik. Egun bat beranduago izendatu zen errepublika; behin-behineko gobernuak burua Friedrich Ebert sozialdemokrata zen: ikusi *Ordena gailendu da Berlinen* testuko oin-oharrak.

Honek ez luke askoz gehiago iraun beharko. Dittmann eta Kurt Eisner⁵⁵ askatu badituzte, ezin naute denbora luzez espetxean atxiki eta ez du luze joko Karl bera askatu izan arte. Beraz hobe dugu itxoitea Berlinen elkar ikusi arte.

Bitartean, nire adiskidetasun guztia igortzen dizut.

Beti zurea,
Rosa

55 Wilhelm Dittmann (1874-1954) 1918ko urriaren 15ean utzi zuten aske. Kurt Eisner (1867-1919) urriaren 14an eta 1919ko otsailaren 21ean asasinatu zuten.

Rosa Luxemburgi gutun anonimoa⁵⁶

Espetxetik atera zaituzte. Makilakadaz eta ostikoka lurrera bota zaituzte ate aurrean, soldadu batzuk omen ziren. Horrela erail zaituzte. Ondoren, zure hilotza desagerrarazi dute. Hilketaz salatutako armadako ofizialak aske utzi dituzte. Militarren lekukoak desagertu dira.

Presondegian zeundenean eskutitz batzuk idatzi zenizkidan. Garai hartan oraindik jaio gabea nintzen hala ere. Orain irakurtzen zaitudanean, hildako bati erantzuten diot. Baina zer axola du? Ba al dakizu denborak ez duela ezer aldatu. Ia ezer ez. Mundua beti bezain ederra da, itxaropena beti bezain handia. Bai, gu lasai eta baketsu izango gara hala ere, berriak onak baitira, zure bitartez dakigu munduko presondegia guztiak indargabeak direla itxaropena eta samurtasuna eteteko, zure bizitzeko modua bizi dezakegun egunera arte, zure borroeroei zuk ezagutu duzun heriotza opa gabe. Zertarako? Zureganako gupida izan behar zuten zoro horiek, zure aurpegi gainean ukabila altxatu bezain laster.

56 Gutun hau ez dago jatorrizko 1920ko Jugend-Internationale edizioan, bai ordea 1969ko frantsesezko Béliabaste itzulpenean.

Ba al zekiten? Ba al zekiten egunetan eta asteetan zehar eguneroko maitasunaz eta itxaropenaz mintzatu zinela? Ama gaixo errukiorra zinen, espetxeko mahai aurrean eserita, presondegiko harresien aurrean, presondegiz presondegiz zaintzaileek zelatatu askatasun delituagatik. Zain zeuden kanpoan zure hiltzaileen keinuak. Hil dute. Agindua bete dute.

Gure garaian baditugu mota horretako gizonak. Beraz, benetan ez da gauza askorik egin gizon-emakumeen alde. Ezarririk ditugun zereginen edo sekulako lanen aurrean adorerik gabe sentitzen gara batzuetan. Ez gaude ideologia, taktika eta banderen faltan hala ere, alderantziz. Halako tartea hartzen du gurean kontzientzia politikoak ahazten zaigula esatea: «besar-katzen zaitut ala zure eskua adeitasunez hartzen dut». Bihotza falta zaigu, zure bihotza –zure arima– esatea gustatuko litzaidake hitz horrengatik bizidunen artetik ateratzeko arriskurik ez balu.

Zure beharra daukagu. Azken finean, jakin behar dugu, behin helburua lortuta ideologiak pikutara bidali beharko diren armak direla. Zuhaitzen edertasuna, haizearen usaina, begirada baten berotasuna, zeruaren koloreagatik borrokatzen dugula. Zorionaren fanatikoak gara, hori da zure gutunek esaten didatena. Eta iruditzen zait irakurri baino lehen, ez nuela inoiz iraultzari buruz mintzatzea entzun. Bai, zure beharra dugu, orain batez ere gaueko lainoak edonon desegiten direla dirudien unean. Agian hau da datorren eguna, agian luzaro itxaron beharko dugu oraindik, ez dakit. Baina egunsentian arpilatze ugari konpondu eta hondamendi asko altxatu beharko ditugu eta ez naiz ari ikusten diren zauriez. Berritua, agian, garaieratik eroriko gara, garaituko gaituzte, alaitasuna susmagarri eta maita-

suna gaitzesgarri bihurtzen duen gaixotasun arraro honengatik.

Agian jaiotzeke dauden gure haurrak orrialde hauek irakurriko dituzte eta argi izango dute zure ahaleginak eta borrokak, sufrimendu guztiak merezi zituela. Jakingo dute zure gutunetan zehar dabilen bihotzeko musikatxo malenkoniatsu setatiarengatik eta funtsezko egia diote: «Eguneroko samurtasuna naiz, gizon-emakumeen gupida. Inoiz ez nauzue ahaztu, ni naiz mundu honetan maiteena duzuen».

Rosa! Egunen batean, azkenean bizitza lortzen badugu, ez dizugu harrizko estatua bat eraikiko, hitza emana dago. Ez zara kale edo lorategi publiko baten izena izango. Baina kartsuki desiratzen dut, munduko udaberri gozoetan gure artean izango zarela beti, leialki.

Besarkatu eta adeitasunez eskua hartzen dizut.

ORDENA GAIENDU DA BERLINEN

«Ordena gailendu da Varsovian» iragarri zuen Sebastiani ministroak¹ Pariseko Ganbaran 1831n Pragako auzuneen kontrako eraso lazgarria agindu ostean, Paskievitx-en² soldaduak Poloniako hiriburuan sartu ziren borroeroen lanarekin hasteko matxinatuen kontra.

«Ordenak agintzen du Berlinen!» aldarrikatu du prentsa burges garaitzaileak, Ebert-ek³ eta Noske-k⁴ aldarrikatu dute, «tropa garaileen» ofizialek aldarrikatu dute Berlingo jengaila burgestxikiaren zapien eta «gora!» oihuen harreraren aurrean. Alemanen armen loria eta ohorea Munduko historiaren aurrean salbatu

-
- 1 Horace François Bastien Sébastiani (1772-1851) militarra, diplomatikoa eta Frantziako Atzerri Ministroa izan zen.
 - 2 Ivan Fiodorovitx Paskievitx (1782-1856) 1830eko Poloniako matxinada nazionalista zapaltzeaz arduratu zen armada errusiarreko jenerala izan zen.
 - 3 Friedrich Ebert (1871-1925) Alemaniako Presidentea eta SPDko buruetako bat.
 - 4 Gustav Noske (1868-1946) Defentsa ministroa izan zen Weimareko errepublikan eta SPDko eskuin hegalaren buruetako bat izan zen. *Freikorpsak*, eskuin-muturreko boluntarioen talde paramilitar bat, erabiltzearen aldeko jarrera izan zuen espartakisten iraultza zapaltzeko. Rosa Luxemburg eta Karl Niebknechten hilketen arduradun nagusia izan zen, beraz.

dira. Flandes eta Ardenetako batailetan garaitu zituzten negargarriek izen oneko garaipen distiratsu bat ezarri dute... *Vorwärtseko*⁵ 300 «espartakisten» gainean. Belgikaren gainean Alemaniako tropek izan zituzten aurrerapen loriatsuetako balentriak, Liejako garaile von Emmich jeneralaren balentriak, zurbildu egiten dira Berlingo kaleetan Reinhardt eta konpainiak⁶ egindako balentrien aurrean. *Vorwärtsen* errendizioa negoziatze-ra joan ziren *parlamentariak* erail zituzten, gobernuaren soldaduek armen ipurdiekin suntsitu zituzten gorpuk erabat ezagutezinak bihurtu arte, presoak hormetatik zintzilikatu zituzten eta asasinatu zituzten kaskezurra apurtzeraino eta burmuinaren oreka banatzeraino: balentria loriatsu hauek ikusita nork pentsatzen du jada frantsesen, ingelesen eta amerikarren porrot lotsagarrietan? «Espartako» du izena etsaiak eta gure ofizialen arabera Berlinen garaituko dute. Noske «langilea» da Lundedorff-ek⁷ huts egin duen tokietan garaipenak antolatzeaz arduratzen den jenerala.

Nola ez dugu gogoratuko Parisen «ordena» ezarri zuen ehiza-zakur saldoaren garaipeneko mozkorraldia, Komunako borrokalariaren gaineko gorpuen gainean burgesiak egin zuen bakanala? Prusiarren aurrean lotsagarriki kapitulatu berri zuen burgesia bera dira, azken koldarrak oinak bolboran jartzen dituen bezala, atzerriko etsaiaren esku herrialdeko hiriburua abandonatu zuten berberak dira! Baina Parisko prole-

5 SPDren egunkaria, 1919ko urtarrilaren 5ean Liga Espartakistarekiko fidelak ziren langileek eta soldaduek okupatu zuten.

6 Walther Reinhardt (1872-1930) Prusiako azken Gerra ministroa, espartakisten matxinadaren kontrako zapalkuntza militarra zuzendu zuen.

7 Erich Ludendorff (1865-1937) armada prusiarreko militar nabarmena izan zen. Alemaniak Lehen Mundu Gerran galtzea ezkerren sabotajeari eta judutarrei lotzen zien. 1923an Adolf Hitler-ek Munichen eman zuen estatu kolpean parte hartu zuen.

tarioen parean, goseti eta gaizki armatuta, emakume eta haur defendaezinen kontra, zenbat loratu zen berri-
z ere burgesiaren semetxoen gizontasunaren kuraia, ofizialen «urrezko gaztaroa»! Berriki atzerriko etsaien aurrean umiliatu zituzten Marteren semeen oldarkortasuna zenbat zabaldu zen basakeria krudelez tratatu zirenean babesgabeak, presoak, eroriak!

«Ordena gailendu da Varsovian!», «Ordena gailendu da Parisen!», «Ordena gailendu da Berlinen!», hori da «ordenaren» zaindarien aldarrikatzen duten mende erdiro munduan borrokak gertatzen diren toki guztietan. Eta «garaile» euforiko horiek ez dira jabetu, halako sarraski odoltsuekin, aldian behin, mantendu behar den «ordena» amaierara iritsiko dela modu saihestezinean. Zer izan da «Espartakoren astea» Berlinen, zer ekarri digu, zer irakaspen? Borrokaren erdian, kontrairaultzaren garaipenaren deiarren erdian proletario iraultzaileek gertatutakoaren balantzea egin behar dute, gertakizunak eta bere emaitzak neurtu behar dituzte historiaren neurri zabalarekin. Iraultzak ezin du denborarik galdu, iraultzak aurrera darrai bere helburu handietarantz hilobi irekien gainetik, «garaipenen» eta «porroten» gainetik. Sozialismo internazionalaren aldeko borrokalarien lehenengo lana beren buruargitasunarekin jarraitzea da, beren indarlerroekin, beren bideekin.

Espero zitekeen proletario iraultzaileen betiereko garaipen bat egungo enfrontamenduan, Ebert-Scheidemann-en⁸ erortzea bat espero zitekeen eta diktadura sozialista baten ezartzea? Aferari buruzko elementu

8 Philipp Scheidemann (1865-1979) politikoa alemanak 1918ko azaroak 9an Alemaniako Errepublika aldarrikatu zuen Kantzilertza bakoian. Friedrich Ebertekin batera SPDko gehiengoa ordezkatzen zuten. Alemaniako Kantzilerra izan zen 1919ko otsailetik urte bereko ekainera arte.

guztiak osotasunean aztertuta bistan da ezetz. Egungo egoeran iraultzaren aldeko kausak zabalik duen zauriarekin; soldaduen masaren heldutasun falta politikoa oraindik manipulatua dago ofizialen helburu anti-herrikoiekin eta anti-iraultzaileekin, eta horrek erakusten du talka honetatik ezin zela iraultzaren garaipean iraunkor bat itxaroten ahal. Bestaldetik, afera militarren heldutasun falta hori iraultza alemanaren heldutasun falta orokorraren sintoma besterik ez da.

Landa eremutik dator soldaduen masaren portzentaia handi bat eta iraultzak ez du ia ukitu. Berlinek herrialdearen gainontzeko eremuetatik isolatuta egoten jarraitzen du oraingoz. Egia da probintzietan badirela gune iraultzaileak –Renaia, iparraldeko kostaldea, Braunschweig, Saxonia, Württemberg– gorputzarekin eta arimarekin Berlingo proletarioak babesten dituztela. Baina, bereziki falta dena da aurrera egiteko koordinazioa, ekintza komun zuzena behar da, Berlingo langile klaseari erasotzeko askoz eraginkortasun handiagoa eta mobilizatzeko abiadura emango liokeena. Bestetik, borroka ekonomikoak, klase borroka iraultzailea aurrerantz bultzatzen duen benetako indar bolkanikoak, oraindik hastapen egoeran daude –horrek harreman sakonak dauzka aipatutako iraultzaren politikekin–.

Honetatik guztitik atera dezakegun ondorioa da, une honetan ezin zela garaipean iraunkor eta betiereko batean pentsatu. Horregatik, azken asteko borroka «akats» bat izan da? Bai, «erasoaldi» intentzionatu soil bat izan balitz, «putsch» esaten diotena izan balitz. Ordea, zein izan da azken borroka asteko abiapuntua? Aurreko kasu guztietan bezala, abenduak 6an eta abenduak 24an bezala: gobernuaren probokazio basati batengatik izan da! Chaussee karrikako manifestari

babesgabeekin egin zuten odol bainuarekin bezala eta marinelen kontrako sarraskia, honakoan Berlingo poli-ziaren bulego nagusiaren kontrako asaltoaren aukera izan zen ondorengo gertakizunen aitzakia.⁹ Iraultzak ez du nahi duen bezala ekiten, ezin da landa zabalean ibili, «estrategiek» pentsatutako plan inteligente baten bidez. Iraultzaren etsaiek ere badute ekimena, bai, eta iraultzak berak baino gehiago erabiltzen dute.

Ebert-Scheidemann eta enparauen probokazio nabarmenaren aurrean, langile klase iraultzaileak armak hartu behar izan zituen. Iraultzarentzat ohore kontu bat zen erasoari ahalik eta erantzun zurrune-na ematea, kontrairaultza ez zedin hazi aurrerapauso berri batekin eta proletario iraultzaileen lerroak eta Alemaniako iraultzaren sinesgarritasunak ez zitzaizkion Internazionalaren aurrean galera handiegiak jasan.

Ostantzean, Berlingo masen aurrez-aurreko bat-bateko erresistentzia espontanea izan zen eta energiaz beterik zegoela hain zen nabarmena «kalearen» garaipen moralak hasieratik zegoela garbi.

Baina bada iraultzaren barne lege funtsezko bat, zeinaren arabera inoiz ez den geratu behar, inoiz ezin dela moteldu, ezin dela pasiboa izan lehenengo aurrerapausoaren ondoren. Defentsarik onena eraso dela. Iraultzaren arau funtsezko horrek iraultzaren pauso guztientzat balio du. Nabarmena zen –eta hala ulertu behar da benetako senez, Berlingo proletarioek beti izan dutela barne indar prestu bat– ezin zela ase egon Eichhorn¹⁰ ordezkatzearekin. Espontaneoki kon-

9 Irakurri hurrengo oharra.

10 Emil Eichhorn (1863-1925) USPD Alderdi Sozialdemokrata Independenteko buruetako bat izan zen, irudi ona zeukan Alemaniako langile klasearen aurrean. 1918ko azaroan Berlingo poli-ziaren buru izendatu zuten. 1919ko urtarrilaren 4an Friedrich Ebert Kantziler berriak postutik kendu zuen, horren kontrako manifestazioak egon ziren eta eraikin publiko zenbait okupatu ziren, tartean, poli-ziaren egoitza nagusia.

trairaultzaren botere-guneak okupatu ziren: prentsa burgesa, prentsaren agentzia ofiziosoak, *Vorwärts*. Neurri horiek guztiak masengandik sortu ziren uste zelako kontrairaultzak ez zuela jasandako porrota onartuko eta indarrezko froga bat bilatuko zuela.

Eta hemen ere iraultzaren lege historiko handiekin egin dugu topo, berriz ere, USPDren estiloko «iraultzaile» txikien jakintzek eta gaitasunek talka egingen dute lege horrekin: borroka bakoitzaren aurrean erretiratzeke aitzakiak besterik ez dituzte bilatzen. Iraultza bateko arazo nagusia argi eta garbi azaldu denean –eta arazo hori iraultza honetan Ebert-Scheidemannen gobernua eroraraztea da, sozialismoaren garaipenerako lehenengo oztopoa da–, arazo hori behin eta berriro azaltzen da, gaurkotasun osoz eta lege natural baten saihetsezintasunarekin; borrokaren atal isolatu bakoitzak arazoa erakusten du bere dimentsio guztiekin, nahiz eta iraultza ez dagoen nahikoa prest konponbidea emateko, nahiz eta egoerak ez duen heldutasun nahikorik. «Behera Ebert-Scheidemann!» da krisi iraultzaile bakoitzeko gatazka partzialei erantzuteko formula bakarra eta, bere barne logikarengatik, nahi ala ez, borroka pasarte bakoitza muturreko ondorioetara bultzatzen da.

Kontraesan bat dago iraultzaren hasierako garapenean egin behar diren lanen muturreko izaeraren eta aurrez dauzkagun baldintzen heldutasun faltaren artean, horregatik, borroka bakoitzaren ondorio formula porrota da. Baina iraultza da amaierako garaipena «porroten» sail baten bidez prestatzen den «gerra» bakarra –oso lege bitxia da–!

Horri esker Eichhornek bere postuan jarraitu zuen, horren ondorioz hasi zen espartakistek zuzendutako matxinada.

Zer erakusten digute iraultza moderno guztien historiak eta sozialismoak? Europako lehenengo klase borroka sugarrak, 1831n Lyongo zeta ehuleen altxamenduan porrot nabarmen batekin amaitu zuten. Ingalaterrako mugimendu kartistak ere porrot batean bukatu zuen. Parisko proletarioen insurrekzioak, 1848ko ekaineko egunetan, porrot suntsitzaile batekin bukatu zuenekoak. Pariseko Komuna porrot izugarri batekin itxi zen. Sozialismora gidatzen duten bide guztiak –borroka iraultzaileak badira– porrot handiekin erein dira.

Eta, ordea, bide horrek berak gidatzen du, pausuz pausu, modu saihetsezinean, azken garaipenera! Non egongo ginateke gaur «porrot» horiek gabe, handik atera dugu jakintza, indarra, idealismoa! Gaur proletarioen klase borrokaren azken gudutik oso gertu iritsi gara, porrot horien gainean babestu gara eta ezin diegu horietako bakarrari uko egin, guztiak dira gure indarraren parte eta guztiak erakutsi diguten zeintzuk diren, garbi, gure xedeak.

Borroka iraultzaileak borroka parlamentarioen guztiz kontrakoak dira. Alemanian lau hamarkadetan izan ditugu «garaipen» parlamentario entzutetsuak, garaipenetik garaipenera gindoazen. Eta horren guztiaren emaitza, historiaren froga handiaren eguna iritsi zenean, 1914ko abuztuaren 4a¹¹ iritsi zenean, porrot politiko eta moral bat izan zen, urperatze harrigarri bat, aurrekaririk gabeko bankarrot bat. Iraultzek, ordea, orain arte porrotak soilik ekarri dizkigute, baina saihetsezinezko porrot horiek metatu dute etorkizun-

11 Alemaniako armadak Belgika eta Luxenburgoko inbaditu zituen eguna. Eraso jarraituen ostean Frantziako iparraldeko eremuak militarik kontrolatu zituzten.

nean lortuko dugun azken garaipenaren beharrezko garantia.

Baina baldintza batekin! Porrot bakoitza ze baldintzetan gertatu den aztertu behar da. Porrota gertatu da masen borrokarako energia heldutasunik gabeko baldintzen hesien kontra txikitu delako ala epelkeriarengatik izan da, zehaztasun faltarengatik, barneko ahuldadeengatik gelditu da ekintza iraultzailea?

Bien adibide klasikoa dira batetik Frantziako otsaileko iraultza eta Alemaniako martxoko iraultza. 1848ko Parisko proletarioen ekintza heroikoa klase-energia bizia izan da nazioarteko proletario gutientzako. Bestetik, Alemaniako martxoko iraultzaren miseriek Alemaniaren garapen modernoaren ibilera baldartu dute, oinei lotutako burdinazko bola batek bezala. Beren eragina zabaldu dute Alemaniako sozialdemokrazia ofizialaren historia partikularrean, baita egungo iraultza alemanaren gertakizunetan eragiteraino ere, bizi berri dugun krisiraino ere iritsi da.

Zer esan dezakegu, lehen aipatu ditugun aferan historikoez, Espartakoren astea deitu duten honetan jasan dugun porrotari buruz? Heldutasunik gabeko egoera baten kontra talka egin duen energia iraultzailearen gehiegizko kemenak sortutako porrota bat izan da ala geure ekintzen ahuldadeengatik eta ezbaiengatik gertatu da?

Bi gauzak batera! Krisi honen izaera bikoitzak, Berlingo masen indarrez beteriko erasoaren eta zuzendaritzaren zalantzen, duda-muden eta lotsaren arteko kontraesana izan da berriki gertatutakoaren datu bixienetako bat.

Zuzendaritzak huts egin du. Baina zuzendaritza berriro sor daiteke eta masek sortu behar dute beren baitatik. Masak dira erabakigarriak, haiek dira iraultzaileak.

tzaren azken garaipena oinarritzeko arroka berriz ere. Masek beren maila eman dute, haiek egin dute «porrot» hau porrot historikoen saileko piezetako bat eta nazioarteko sozialismoaren ohorea eta indarra osatu dute. Eta horregatik, «porrot» honen enborretik loratuko da etorkizuneko garaipena.

«Ordena gailendu da Berlinen!». Lekaio mada-rikatuak! Zuen ordena arearen gainean eraikita dago. Bihar, iraultza «berriz ere zutituko da burrunba eginez» eta aldarrikatuko du, zuei izua eraginez, tronpeta soinu-
nuen artean:

Izan nintzen, bainaiz eta izango naiz!

HITZOSTEA ZENBAIT TESI ROSA LUXEMBURG ESPARTAKISTARI BURUZ

Zer entzuten dugu «Rosa Luxemburg» aipatzen den bakoitzean? Zer ekartzen digute gogora letra hauek? Hona hemen izen hori eta abizen hori ahoskatzen diren bakoitzean entzuten diren zenbait oihartzun.

REVOLUTION. «Die Revolution hat begonnen», «Iraultza hasi da», plazaratu zuten Rosa Luxemburgek *Die Rothe Fahne* egunkari komunistan 1918ko azaroaren 18an. Ordurako garbi zeukan zein zen iraultzaren esanahia: «kapitalismoaren menperaldia abolitzea, ordena sozialista egikaritzea». Hori zen iraultzaren «gai historikoa» eta ez beste ezer. Hohenzollernen monarkia zapalduta, Langileen eta Soldaduen Kontseiluen asmo bakarra gobernu iraultzailearen lana egitea zen, sobieten modura. Langileen eta Soldaduen Kontseilu Nazional baterako deialdia egin zuten, Alemania osoko proletariotza «klase gisa, botere politiko trinko gisa» iraultzaren gotorlekua eta sustapena izan zedin. Horretarako beharrezkoa zen administrazioaren, botere judizialaren, armada absolutistaren eta esta-

tu-poliziaren organo zaharrak deuseztatzea. Dinastia monarkikoaren eta lur-jabeen ondasunak konfiskatzea proposatu zuen, jendearen mantenua bermatzeko deuseinuz, gosea kontrairaultzaren aliaturik arriskutsuena zelako. Haatik, «Der Anfang» edo «Hastapena» izenburua zuen artikulua hartan, gobernu iraultzaile berriari leporatu zion behar adina neurririk hartu ez izana, administrazioaren eta estatuaren organoak ukigabe laga izana, «Bakea! Ordena! Bakea! Ordena!» oihukatzen zutelarik. Amaiera ezaguna da: kontrairaultzaren ordena inposatu zen, odolez eta gupidarik gabe. Luxemburgek sozialdemokraziaren tentsio osoa irudikatu zuen: kapitalismoaren eta inperialismoaren aurrean batzuetan erreforma sozialaren ala iraultzaren artean aukeratu behar da. Hala eta guztiz ere, artikulua ohartarazle hartan emakume igarle honek historiarako ikasbidea utzi zigun: «Baina iraultzak ez dira paratzen. Haien bizi-legea aurrerapen azkarra da, bere horretatik haraindian hazten dira». Bizi-lege hori gabe ez dago iraultzarik.

ORDENA. Rosa Luxemburgek salatutako ordena kriminala izan zen. 1962an Waldemar Pabst kapitainak honakoa adierazi zuen: «Garai hartan [1919ko urtarrilean] KPD [Alemaniako Alderdi Komunista] alderdiaren mitin batera bertaratu nintzen, mitin hartan Karl Liebknecht eta Rosa Luxemburg mintzatu ziren. Niregan sorturiko zirrara izan zen biak iraultzaren lider intelektualak zirela, eta erail behar zituztela erabaki nuen. Nire esanetara atxilotu zituzten. Norbaitek erabaki irmoa hartu behar zuen zuzenbideko legeetatik harago joateko... Biok erailtzeko erabakia ez zen erraza niretzat. Erabaki hau moralki eta teologikoki zilegi delakoan nago». Gustav Noske ministro sozialdemokrataren baimena zela bide, Pabst kapitainaren

agindua bete egin zen. Berlinen inposaturiko ordena moral horrek Alemaniako ordena berria iragarri zuen, komunismoaren aurkakoa, geroago nazionalsozialismoak baliatuko zuena. Pabst eta Noske bezalako pertsonaia historikoek erakusten digute noraino heldu zen sozialdemokraziaren saldukeria eta nola eraikiko zen Europako ordena. Haien eskutik faxismoa sartuz joan zen. *Freikorps* paramilitarren liderrak, Pabstek, esaterako, Batasun Nazionala edo *Nationale Vereinigung* erakunde ultranazionalista fundatu zuen eta 1931n manifestu bat idatzi zuen «Internazional Zuria» eskatzeko, «askatasuna, berdintasuna, senidetasuna» balio ilustratuak kentzeko eta Europa osoan zehar «hirutasun berria: aginpidea, ordena, justizia» ezartzeko asmoz. Rosa Luxemburgen testamentu politikoa sozialdemokraten eta faxisten artean eraikitako mehatxu horren abisua daukagu: «“Ordena gailendu da Varsovia!”», “Ordena gailendu da Parisen!”», “Ordena gailendu da Berlinen!”», hori da “ordenaren” zaindarien aldarrikatzen dutena mende erdiro munduan borrokak gertatzen diren toki guztietan. Eta “garaile” euforiko horiek ez dira jabetu, halako sarraski odoltsuekin, al-dian behin, mantendu behar den “ordena” amaierara iritsiko dela modu saihestezinean». Hil arte, ordena hori salatu zuen Rosak.

SOZIALISMOA. Historiak Rosa Luxemburgen munta handitu du, bere kasuan sozialdemokraziaren traizioa iragarri zuelako. Eduard Bernstein erreformistarekin eztabaidatu zuenetik era gardenean erakutsi zuen nola suertatzen den sozialdemokraziaren saldukeria eta non oinarritzen den benetako sozialismoa. *Erreforma* edo *iraultza* izeneko lanean sekulako azterketa aurkituko dugu, bertan argitzen digu non egiten

duen porrot sozialdemokraten errebisionismoak, erreformismoa ez delako nehoiz iraultza soziala izango. Hurrengo paragrafoak programa politiko oso bat dira, betirako buruan gorde behar direnak:

Gizarte burgesaren historian, erreforma sozialak gorakadan zetorren klasea pixkanaka indartzeko balio izan zuen, botere politikoa konkistatzeko, garaiko sistema juridiko osoa eraisteko eta berri bat eraikitzeke adina indar bazuela sentitu zuen arte. (...)

Antolaketa juridiko oro iraultzaren *produktu* bat besterik ez da. Klaseen historian, iraultza ekintza politiko sortzaile bat da, legeriak gizarte batean biziraupen politikoa soilik adierazten duen bitartean. Lege erreformak ez du iraultzarekiko independentea den bulkada bat sustatzeko berezko gaitasunik, garai historiko bakoitza azken iraultzak markatu duen ibilbidean mugitzen da soilik, bultzada horrek irauten duen bitartean. Edota zehatzago esanda: azken iraultzak ezarri duen ordena sozialaren *testuinguruan* soilik mugitzen da. Hau da auziaren gakoa.

Erabat faltsua eta ez-historikoa da erreformak iraultzaren zabalpen bat bezala kontsideratzea, eta aldi berean, iraultza erreformen zerrenda kontzentratu bat bezala ikustea. Erreforma eta iraultza ez dira euren *iraupe* nagatik bereizten, euren *esentzi* agatik baizik. Botere politikoa erabiliz aldaketa historikoak aurrera eramateko sekretu guztia aldaketa kuantitatibo soilak nolakotasun berri bilakatzean datza: zehatzago esanda, garai historiko batetik –ordena sozial batetik– besterako trantsizioa burutzean.

Beraz, bide erreformistaren alde agertzen denak, botere politikoaren konkistaren eta iraultza sozialaren bidearen *ordez eta honi kontra* jarri, errealtatean ez du helburu berera doan bide lasaia, seguruago eta mantsoago bat hautatzen, helburu ezberdin bat baizik: gizarte berri baten ezarpenaren orde, zaharraren aldaketa txepel batzuk hautatzen ditu. Era honetan, errebisionismoaren ikuspegi politikoei jarraiki bere teoria ekonomikoak aztertuz iristen garen ondorio berdine-

tara ailegatzen gara: ez du sozialismoaren gauzatzea bilatzen, kapitalismoaren erreforma baizik, ez du soldatapeko lanaren sistemaren ezabapena bilatzen, esplotazioa murriztea baizik. Laburbilduz, ez du kapitalismoaren deuseztapena bilatzen, bere gehiegikerien leuntze bat baizik.

Zer da, beraz, aldaketa historia politikoan? Ez da erreforma kuantitatiboen batuketa. Kualitatiboa da aldaketa. Legeak bideratzeko eta ordena soziala sortzeko gaitasun kualitatiboa. Hauxe da erreformistek ahazten dutena. Halakoa atzentzen denean, agenda politikoaren erreformen artean galtzen da, kapitalaren klasearen bermea bihurtuz. Aldaketa kualitatiboa denean, iraultza soziala gertatzen da. Nolakotasunean berritasun esentziala gertatzen da. Kuantitatiboa denean, ordea, klase hegemonikoaren menpe geratzen da, eta aldaketa erreformismoa baizik ez da izaten. Benetako helburua ez da kapitalismoaren erreforma, sozialismoaren gauzatzea baizik. Eta horretarako esplotazioa murriztea eta leuntzea ez da nahikoa.

ARRANOA. Vladimir Ilitx Ulianov Leninen ustez Rosa Luxemburgek hainbat gaitan egin zuen huts. *Pravda* egunkarian 1924an karrikaratutako artikulua batean ekarri zituen gogora: Poloniako independentziaren aurkako jarrera, 1903an mentxebismoaren azterketa, kapitalaren metaketari buruzko teoria, 1914ko uztailan hasitako gerra, Plekhanov, Vandervelde eta Kautskyrekin batera boltxebikeen eta mentxebikeen arteko batasunaren defentsa, bertzeak bertze. 1918an espetxean idatzitako testuetan ere okertu zen Luxemburg, baina akats horietako gehienak 1918ko bukaeran eta 1919ko hasieran zuzendu zituen kalean, Leninen aburuz. Ezaguna izan zen zeintzuk izan ziren Lenin eta Luxemburgen arteko desadostasunak, Errusiako

Iraultza kontuan izanik. Haatik, testu hartan hurrengo gehitu zuen Leninek: «bere akatsak akats... [Rosa Luxemburg] beti izan zen eta izango da arrano bat». Fabula errusiar batek zioenez, arranoek oiloek baino baxuago egiten dute hegan, baina oiloak ez dira nehoiz gai izango arranoen garaieran hegaldatzeko. Luxemburgen bizitzan eta lanean komunista baten ahalegina ikusten zuen. Hori zela eta, Luxemburgen testuak bilatzeko eta berriro argitaratzeko eskatu zuen Leninek. Marxismoan eta materialismoan senidetasuna, arranoen begiek ulertzen eta ikusten dutena.

LIGA. *Spartakabund* edo Liga Espartakistaren egunak behatzen baditugu, porrot bat baino gehiago ikusiko dugu. Espartako askapenaren izena izan zen Antzinaroan. Behinola esklabotzaren aurkako burujabetza eta gertakizun horren izendapena. Ildo honetatik Alan Badiouk Espartako/ Toussaint-Louverture/ Luxemburg/ Liebknecht leinua aipatzen du *Logiques des mondes saiakeran*. Badaude Espartako zahar edo antzinako bat, Espartako beltz bat, Espartako gorri bat... eta etorriko dena. Badaude, edo Luxemburgen hitzetan: «izan nintzen, banaiz, izango naiz». Espartako horiek eskuratzen dutena ahanztura ahaztea da. Liga Espartakistaren eztabaidak irakurriz, ahanztura horren aurkako ikasbidea daukagu. Langileria ahaztu duen parlamentarismoaren aurka, hauteskundeetara ez joatea izan zen Ligaren proposamena. Lanaren klasea ahaztu duen sindikalismoaren kontra, soldaduen, langileen eta fabriken kontseiluak eskatu zituen Rosa Luxemburgek Liga horretatik. Langile komunisten Internazionala sozialdemokratek ahaztu izanaren aurka, berriro Internazionala indartu gura zuten. Kapitalismo inperialistaren kontra, Ligan Errusiako Iraultza goraiapa-

tu zuten. Hiritarren eta baseritarren arteko zatiketaren aurka, nekazariak, soldaduak eta hiriko langileak batu nahi izan zituzten. Kapitalaren komunikabideen aurka, *Die Rote Fahne* bezalako hedabide komunistak plazaratu zituzten. Alderdi sozialdemokrataren traizioaren aurka, Alemaniako Alderdi Komunista sortu zuten. Historiaren ikuspegitik porrot bat izan zela dirudi, baina Espartako gorri hori askoz gehiago izan zen. «Bizi-legea da haur jaioberri batek garrasi egitea», esan zuen Rosak egun haietan. Liga Espartakista izan zen jaioberri horren oihua, isiltasuna urratu zuena, askapenerako promesa egin zuena ahanzturaren aurka. Halaxe izan zen, bada, eta izango da.

UNIBERTSALTASUNA. Miresgarria da Rosa Luxemburgen belaunaldiak izandako zorroztasun unibertsala mundua ulertzerakoan. 1918ko azaroan *Die Rote Fahne* egunkari komunistatik Rosa Luxemburgek, Karl Liebknechtek, Clara Zetkinetik eta Franz Mehringek sinatutako testu batean munduko langile-riari dei bat egin zioten, gizateria goseak mehatxatuta eta hiltzear zegoelako. Une hartan «kapitalaren basapiztia» eta «zapalkuntzen Hidra» salatu zituzten. Sozialismoa zen erantzun unibertsal bakarra Mundu gerra hartan. «Gizateriak hautabide bati aurpegi eman- go dio: anarkia kapitalistan erortzea eta desagertzea ala iraultza sozialaren bidezko birsorkuntza», zioten laurok. Kolonialismoa eta inperialismoa, gerra eta gosea, kapitalismoa eta militarismoa. Dena uztartuta zegoen. Alemaniako proletarioei eginiko deia Euro- pako eta munduko proletariotzari ere hedatu zioten. Proletarioen jabetzarik baliotsuena «Internazionala» zela gogorarazi zuten, eta, bide batez, nola egin zioten traizio zenbait sozialistek 1914ko abuztuan. Alemania-

ko iraultza proletarioa eta Errusiakoa zapaltzekotan, langile klasearen aurkako indarkeria areagotuko zela ohartarazi zuten. Alta, halako unibertsaltasun-mota aienatu da egun. Mundua ulertzeko eta horren neurrirako politika egiteko maila eskasa da, gehien bat Europako kapitalismoan. Izan ere, langile klasekook ez daukagu atzoko Internazionalik. Bitartean, kapitala nagusitu da, bere joera unibertsalista izan zen, bada eta izango da. Globalizazioa deitzen duguna egungo kapitalaren unibertsalismoa da. Horren aurrean ez daukagu iraganen komunismoak eta sozialismoak hausnartutako eta planifikatutako eredurik. Kapital unibertsal horri dagokion neurriari beldur diote kapitalismoaren aurkako mugimendu eta alderdi anitzek. Honez gain, unibertsalismoa homogeneousotasun bakuna besterik ez dela deritzote hainbatek eta hainbatek okerki. Gure arrebak, gure ahizpak, Rosak, berriz, asko irakats diezaguke unibertsaltasuna mehatxatuen eta zapalduen eskuetan jartzeko tenorean.

X. Iraultza orotan ixa ezezagun bat topatzen dugu. Kaosaren fisika deskribatuko lukeen ekuazio matematiko batean bezala, funtzioak eta aldagaiak lotuta daude azken emaitza jakin arte, baldintzen eta edukien arabera aldagai. Ez daukagu batuketa matematiko sinplerik masen errebolten historia materialistan. 1906ko *Greba orokorra, alderdia eta sindikatuak* lanean auzi hau aurreikusi zuen mugimendu orokor orotan. Alde bate-tik kalkuluak ez dira beti linealak, ezta zenbatzaileak mugatuak ere: «Iraultzaren bilakabidean mugimendu proletarioaren edozein buruzagitza-organorentzat zail-zailak dira aurreikustea eta kalkulatzeko zer zioik eta zer unek kausatuko dituzten leherketak eta zeintzuk ez». Eta jarraian, iraultzetan eta grebetan sartzen

diren faktoreei dagokienez, Luxemburgetik bat-bateko batasunaren garrantzia azpimarratu zuen: «Elementu espontaneoak zeresan handia izan du. Errusiako masa grebetan, bai aurrera joateko baita geldiarazteko ere. Baina hori ez da gertatu Errusian sozialdemokrazia oraindik gaztea eta ahula delako, bazik eta operazio bakoitza elementu askoren nahasketa delako: faktore ekonomikoak, politikoak, sozialak, orokorrak, lokalak, materialak eta psikologikoak nahasten dira. Ez da posible ariketa aritmetiko huts batekin kalkulatu operazio bakartu bat egitea... Elementu espontaneoren garrantziaren arazoia ez da proletalgora hezi gabe dagoela, baizik eta iraultza egiten ez dela eskolan ikasten». Batzuetan espontaneismorako joera kritikatu zaio Luxemburgi, eta egia da noizbehinka arrisku hori azaleratzen dela. Bere analisisetan, ordea, beti faktore materialak aintzat hartzen dira bat-bateko batasunean gerta daitekeen aldaketaren arloan. Beste modu batez adieraztearren: Alain Badiou filosofoak dio egia politikoei prozesu generikoak eskatzen dituztela, baina beti gertakizunerako arraila bat kausitzen dela, kalkulagarria ez den arraia bat. Hori dela eta, gertakizun (politiko) batean subjektuaren fideltasuna beharrezkoa da, gertakizunetik fideltasun horrek subjektua mantentzen eta eratzen baitu. Horrela ikusita, Luxemburgen ahalegina hobe ulertzen da, iraultzetan nahiz grebetan masen dinamika materialaren historiaren ixa bilatu nahi badugu.

EMAKUMEEN EMANTZIPAZIOA. Emakume proletarioen emantzipazioa errebindikatu zuen belau-naldi bateko kidea da Rosa Luxemburg. Eleanor Marx, Clara Zetkin, Emma Ihrer, Inessa Armand, Aleksandra Kollontai eta Luxemburg bera dauzkagu sozialistotik

eta komunismotik emakumearen garrantzia aldarrikatu zuen tradizioan. 1914an «Emakume proletarioa» lantxoan emakume langilea goraiatu zuen. «Herriko emakumeak betidanik lan egin du», idatzita utzi zuen Luxemburgek. «Emakume burgesa, ordea, gizartearen parasito bat da». Eta jarraian azaldu zuen emakume burgesaren eta emakume proletarioaren arteko ezberdintasuna. «Emakume burgesarentzat bere etxea bere mundua da. Emakume proletarioarentzat bere etxea mundu osoa da». Hori dela eta, emakume burgesen mugimendu sufragista kritikatu zuen, hutsik zegoen ideologia bat zutelako, emakume burgesak ez baitzuen benetako interesik eskubide politikoetan. «Emakumezko proletarioak, ordea, eskubide politikoak behar ditu, gizartean gizon proletarioaren eginkizun ekonomiko bera betetzen duelako». Emakume proletarioen botoaren aldekoa izan arren, bere aburuz berdintasun erreala konstituzio burgesetik harago aurkitzen zen, oinarri ekonomikoetara heldu behar zelako. Emakumearen auzia ez zen inolaz ere gai idealista bat, klase sozialek zeharkatutako errealitate bat baizik. Emakumea etxeko lanetik atera gura izan zuen, emakumezko proletarioa sindikatuen eta sozialismoaren zati bat zelako. Emakume proletarioa eta langile-klasea elkarrekin joan ziren Luxemburgen filosofia askatzailean. Charles Fourier sozialista frantsesaren hitzak ekarri zituen gogora 1912ko «Emakumeen sufragioa eta klase borroka» testuan: «Gizarte orotan emakumearen emantzipazioaren mailak emantzipazio orokorraren neurri naturala ematen du». Berba hauek iruzkinduz, emakumearen eta klase proletarioaren arteko lotura argitu zuen: «Emakumearen eskubide politikoen aldeko masen egungo borroka, proletalgoaren borroka orokorraren zatia eta adierazpena baizik ez da».

MARXISMOA. Karl Marx hartu zuen eredutzat Rosa Luxemburgek, gehien bat 1848ko iraultza eta 1871ko Pariseko Komuna aztertu zituen Marx. Marxismoa iturri metodologikoa izan zen, baita eredu historikoa ere. Luxemburgentzat bi aldeok elkarrekin funtsezkoak izan ziren. Ikuspegi marxiarra beti presente egon zen bere ahalegin teoriko eta praktikoaetan. Oraindik probetxu handiz irakur daiteke berak Wronkeko espetxean 1916-1917an idatzitako ekonomia politikoa-ri sarbide marxista sakona. Testu horretan Alemaniako alderdi sozialdemokrataren koadroei Berlingo eskola nagusian eskainitako prestakuntza laburtzen da. Bestalde, maistra izan zen kapital-jarioaren ikerketan. Hor daukagu bere *Kapitalaren metaketa* liburua, 1913an plazaratua. Lan horretan erakusten da nola lotzen diren kapitalismoa eta inperialismoa. Globalizazioa heldu baino lehenago, Luxemburgek iragarri zuen merkatu berrien bila munduan zehar hedatzeko kapitalaren ahalmena asegabea dela. Inperialismoa izugarrizko kapital-metaketa da. Gai batean, ordea, okertu zen. Azterketa horretan Marxi leporatzen zaio *Kapitala* lanaren bigarren liburukian merkatuaren erreprodukzio zabaldua ahaztu izana. Baina hemen errakuntza bat topatuko dugu, Raya Dunayevskayak primeran azaleratu zuen eran. Marxen miaketan gakoa ekoizpenean dago, ez kontsumoan. Bigarren liburukian enfasia ez dago merkatuan, produkzioan baizik. Izan ere, Marxek argi utzi zuen han azaldutako eta hartutako eredia nazio edo herri batena izan zela, kanpo-merkataritzarik gabekoa. Marxek deskribatu gura zuena izan zen nola eraldatzen den kapital aldakorra (lan bizia) kapital konstantean (lan hilean). Luxemburgek, ordea, jorratu zuen nola hedatzen den kapitala lurralde azpigar-

tuetan merkatu inperialistaren bidez. Bi gai ezberdin dira, lotuta dauden arren. Honez gain, desjabetzearen bidezko kasu sinplean erortzeko arriskua dago, Luxemburgen azterketa soilik kontuan hartzen bada, Marxen proposamena ulertu gabe. Kapitalaren metaketa ekoizpenetik hasten da, lurralde azpigaratu ez-kapitalistak espoliatu baino lehen. Inperialismoa aztertzerakoan komeni da gogoan edukitzea.

BURGESIA. Kapitalaren menpe demokrazia burgestu egin da, aldaketa hori sumatzen ez badugu ere. 2004an Adrienne Rich idazleak «Karl Marx, Rosa Luxemburg eta Che Guevara» testua idatzi zuen, Marx eta Engelsen *Manifestu komunista*, Luxemburgen *Erreforma edo iraultza* eta Guevararen *Sozialismoa eta gizakia Kuban* biltzen zituen liburu baten sarrerarako. Richen idazlan horren amaieran ohartarazten da marxismoa existitzen diren giza-harremanetako oroimenean oinarritzen dela. Aldaezinak badirudite ere, harreman horiek historiaren poderioz eratu izan dira. Erronka da nola aldatu harreman horiek kapitaletik at, ez kapitalaren barruan. Bestelako mundua posible da, baina soilik kapitalismoaren makineriatik ateratzen bagara. Richen zehaztapenetan: «Gaur batzuentzat horrek soilik kontroletik kanpoko kapitalismoaren makina erregulatzeko eta erreparatzeko ahalegina adierazten duen arren, gero eta jende-kopuru handiago baten-tzat horrek bidaiaren noranzko-aldaketa adierazten du, oraindik eratzen ari den errealtate guztiz ezberdinerantz». Horrek ondorio bat dakar: demokrazia sozialismoaren eskuetan jarri behar dela. Eta ez kontrakoa: sozialismoa demokraziaren menpe agertzea. Rosa Luxemburgen pasarte batek argitzen digu (pasarte hori aipatzen du Richek ere modu laburrean)

Erreforma edo iraultza idazlanean Eduard Bernsteinen erreformismoaren aurka:

Demokrazia biziberritzeko baldintza sozialismoaren azken helburua alde batera uztea dela aipatzen duenean, Bernsteinek beste zerbait erakusten du: zein modu eska-sean den beharrezkoa demokrazia burges hori mugimendu sozialistarentzat eta bere garaipenarentzat. Momentu honetan, Bernsteinen arrazoiketa gurpil zoro bat bihurtzen da, ondorioak bere “premisia” irensten du. Gurpil zoro honetatik ateratzea oso erraza da: gorakadan datorren langile mugimenduaren eta bere helburuen aurrean erabat beldurturik, burgesiak bere arima deabruari saldu diola argi geratu ostean, esan liteke langile mugimendu sozialista dela gaur egun demokraziaren *babes* bakarra eta mugimendu sozialistaren etorkizuna ez dela demokrazia burgesaren eskuetan aurkitzen, demokraziaren etorkizuna dela mugimendu sozialistaren eskuetan aurkitzen dena. Hau da, demokrazia ez da bideragarriagoa langile klaseak bere askapenerako borroka alde batera uzten duen heinean, baizik eta nazioarteko politikaren ondorio erreakzionarioei eta burgesiak demokrazia alde batera utzi izanari aurre egiteko adina indartzen den neurrian. Beraz, demokrazia indartzea nahi duen orok mugimendu sozialistaren indartzea nahi izan behar du ere, eta ez bere ahultzea: sozialismoaren aldeko borroka alde batera uzten duenak langile mugimendua eta demokrazia ere alde batera uzten dira.

Ordena burgesak demokrazia bera galarazten du, kapitalaren diktadurak demokrazia oro deuseztatzen duelako. Demokrazia eratu nahi bada, sozialismoaren bidea baino ez dago. Burgesia ez da inola ere demokratikoa izango, nahiz eta egunero «askatasuna» eta «demokrazia» hitzak ahotan izan.

UTOPIA. Rosa Luxemburg, Karl Liebknecht, Vladimir Lenin, Clara Zetkin edo Eleanor Marx bezalako aztartzaileak irakurtzen dituzunean, Karl Marxen on-

dorengo sozialismoaren lehenengo belaunaldiaren izen horien lanak miatzen dituzunean, aurki konprenitzen duzu XX. mendeko bidetik zerbait galdu dela. Galera hori ez zen zeruetatik erori: horretarako beharrezkoak izan ziren bi gerra europar (gogorarazi behar da egun «Mundu Gerra» deitzen ditugunak Europan hasi zirela), baita faxismoaren antolamendua ere (baita faxismo militarizatu eta industrializatu modernoa ere gertakizun europarra izan zen jatorrian). Dena marxismoaren eta komunismoaren bidetik, Europan kapitalismotik at egongo zen ordena sozioekonomikorik eraiki ez zedin. Sozialismoaren lehenengo iturri haiek, ordea, mahaigaineratzen digute utopia posible izan zela. Gaur utopia mespretxatzen edo ahazten da maiz, gehien bat utopia eta idealismoa nahasten direlako. Marxek, Leninek eta Luxemburgek idealismorik gabeko utopia materialista planteatu zuten. Masen greba, demokraziaren erakundeetako mugak, boterearen dinamikak, eguneroko klase-borroka, kapitalaren inperialismo espantsionista edo hedatua, kulturaren eta propagandaren arteko lotura, alegia. Dena aztergai izan zen. Materialismoz beteriko utopia izan zen, idealismorik gabekoa. Egungo berariazko idealismo liberala zabaldu da politikan, boluntarismo sentimentalaren eta marketin elektoralistaren artean, kapitala globalizatzen den bitartean. Globalizazioa da kapitalismoaren utopia materiala, munduan zehar kapitalak gauzatu duena. Beraz, beste utopia bat irudikatu eta diseinatu behar dugu horren auka, kapitalak jorratutako utopiak mundua hustutzen duelako, *tópos* edo lekurik gabe uzten dituelako gizateria eta bizitza. Gaur behar materialista bat da gure bizitzari planeta honetan *tópos* edo leku bat ematea.

ROTE. «Rote Rosa» edo «Rosa gorria» izan zen 1914an Frankfurteko epaiketari luxemburgiar fiskalari emandako izen kalifikatzailea. Gorri-gorria, *Die Rote Fahne* edo *Bandera gorria* bezalako argitalpena bultzatu zuena. 1831n Lyongo zeta ehuleen altxamendua, Ingalaterrako mugimendu kartista, 1848ko ekaineko Parisko proletarioen matxinada, 1871ko Pariseko Komuna, 1917ko urriko Iraultza, 1918 eta 1919ko Espartakismoa bezain gorria. Gorritasun horrek lege bat dauka: «bada iraultzaren barne lege funtsezko bat, zeinaren arabera inoiz ez den geratu behar, inoiz ezin dela moteldu, ezin dela pasiboa izan lehenengo aurre-rapausoaren ondoren». Horrek funtsezko ikasbideak dakartza, *Ordena gailendu da Berlinen* testamentu politikoan adierazi zuen moduan:

Borroka iraultzaileak borroka parlamentarioen guztiz kontrakoak dira. Alemanian lau hamarkadetan izan ditugu «garaipen» parlamentario entzutetsuak, garaipenetik garai-penera gindoazen. Eta horren guztiaren emaitza, historiaren froga handiaren eguna iritsi zenean, 1914ko abuztuaren 4a iritsi zenean, porrot politiko eta moral bat izan zen, urperatze harrigarri bat, aurrekaririk gabeko lur-jotze bat. Iraultzek, ordea, orain arte porrotak soilik ekarri dizkigute, baina saihestezinezko porrot horiek metatu dute etorkizunean lortuko dugun azken garaipenaren beharrezko garantia.

Baina baldintza batekin! Porrot bakoitza ze baldintzetan gertatu den aztertu behar da. Porrota gertatu da masen borrokarako energia heldutasunik gabeko baldintzen hesien kontra txikitu delako ala epelkeriarengatik izan da, zehaztasun faltarengatik, barneko ahuldadeengatik gelditu da ekintza iraultzailea!.

Iraultza ez da parlamentarismoa, itxurazko porrota ez da kale egitea, ageriko ordena ez da langile-

riarena. Gorritasunak dialektika berri bat eskatzen eta eskaintzen du.

GERRA. XX. mendeko hasieran guda kontinente europarra zeharkatu zuen. Gerrak erakutsi zuen zelan lotzen diren kapitala eta inperioa. Rosa Luxemburg eta Vladimir Ilitx Lenin gerraren menpeko kapitalismoaren prozesu berriaz ohartu ziren, baina bere erantzunak ezberdin-ezberdinak izan ziren. Lehenik, auzi bat gogora dezagun. Carl von Clausewitz militar prusiarrak bonapartismoaren guda-metodoan aurkitutako egia adierazi zigun: gerra beste bitarteko batzuez baliatzen den politikaren jarraipena baizik ez dela. Clausewitz buruz Leninek eginiko idatzoharrek erakusten digute nola barneratu zuen ikaspen hura. Europan zehar garatutako gerra handian iraultza proletariorantz hurbiltzeko aukera aurkitu zuen, beharrezkoa izatekotan, gerra sozial eta zibilera heldu arte. Hegelen logikari buruzko oharretatik Clausewitz azterketa historikoari eginiko iruzkinetaraino Leninen marxismo materialista bera topatzen dugu, non kontraesanak (Hegelen logika) eta gerra (Clausewitz politikak) batzen diren. Leninek ez zion uko egin gerrari. Guda historiaren gertakizun material kontraesankorra izanik, Leninek onartu eta bilatu zuen nola bideratu gerra –potentzia inperialistek hasitako gerra– klase borrokaren eremura, eta nola baliatu abagune horretaz iraultzarako. Ikaspen hauxe da marxismo ortodoxo zurrun errusiarrak konprenitu ez zuena. Honetan ere datza Leninen eta Luxemburgen arteko desberdintasuna Iraultzaren sobietarraren garapen eta garrantzia aztertzerakoan. Alemaniako gerra inperialistaren aurrean Rosa Luxemburgen eta Karl Liebknechten jarrera bakezaletasunarena izan zen, inperialismoan langile klaseak parte har ez zezan.

Leninek, ordea, guda gertaera materializat jo zuen, eta langileriaren zeregina leku ezberdinean kokatu zuen. Nahiz eta bukaeran iraultza espartakista bultzatu, Luxemburgek porrot egin zuen bere estrategian, debalde izan ez bazen ere. Leninen bideak, berriz, iraultza proletarioari historia ireki zion. Hala eta guztiz ere, biok, bai Luxemburg, baita Lenin ere, historia unibertsalaren sator zaharraren partaideak dira.

Beraz, testu hau hasi nuen bezala, berriro galde-tuko dut: zer da entzuten duguna «Rosa Luxemburg» aipatzen den bakoitzean, zer ekartzen digute gogora letra hauek? Hona hemen zenbait erantzun:

- R – Revolution edo iraultza
- O – Ordena Berlinen
- S – Sozialismoa bizirik
- A – Arranoa eta bere begirada
- L – Liga Espartakista
- U – Unibertsaltasuna
- X – Ixa iraultza orotan
- E – Emakume proletarioen emantzipazioa
- M – Marxismoa eta kapitalaren metaketa
- B – Burgesia munduan
- U – Utopia materialista
- R – Rote Rosa edo Rosa gorria
- G – Gerra inperialismoaren menpe

Halakoxea da Rosa Luxemburgen esanahia, Landwehrkanal ubidea begiratzuz uretako isiltasun salatzailea entzuten den bitartean.

Ignazio Aiestaran
Iruña, 2018ko urria

